

Hurbiltze bat euskal hitz-ordenaren tradizioari (*)

VICTOR HIDALGO EIZAGIRRE

Sarrerako

Beharbada anekdota pertsonal txiki batek lagun liezaguke bere lekuan kokatzen zeredozer gure puntua. Artean gu haurrak ginenean, baziren gure inguruan erdaldun petoak, euskara tutik ere ez zekitenak eta jakin ere nahi ez zutenak, eta ordea, bazekitenak euskaraz *telefonoa* ez zela esan behar *telefono*, gaztelaniaz esaten zuten bezala, baizik eta *urrutizkina*, euskaldunok, aldiz, esaten ez genuena. Eta nire orduko lotsarako, hitzetik hortzera aurpegiratzen zizkiguten orduan erdaldun petoak, «*Es que vosotros no habláis bien el euskera*» bezalakoak. Nik, ordea, ordura arte ezagutzen nituen euskaldun benetakoeak, hau da, benetan euskaraz mintzatzen zirenek, edo ez zekiten hitza, edo bederen ez zuten erabiltzen, eta nik behintzat artean entzungabea nuen hauen ahotan. Nik, hain zuzen, erdaldunongandik ikasi nuen *urrutizkina* hitza.

Gerora, berriz, eta jada nire bizitza helduan, maiz asaldatu naute antzeko sentimenduek, telefonoaren inguruan bezala hitzegiten aditu dudanean gehien euskarazko hitzen ordenaren gainean. Eta izan ere, gaur egun euskara deusik ere ez dakien edozeinek baitaki eta irakatsi ahal dio berriro harro euskaldun apalari, nola euskaraz aditza (ia beti edo) eman behar den esaldi amaieran, eta ez aldiz inola esaldi hasiera aldean, gaztelaniaz bezala. Ez alfe-

* 1995eko Urtarrilaren 25ean defendatu zuen autoreak Gasteizko Filologia Fakultatean bere *Hitzen ordena euskaraz* tesia eta bereganatu doktore titulua apto *cum laude* kalifikazioarekin. Orduan eginiko tesi defentsa diskurtsoan laburbiltzen ziren gutxi gora-behera tesi lanean zehar ikasi/aurkitu ahal izandakoen mamiak gaiaren inguruan, orain hemen eskaintzen direnak artikulua modura, hainbat moldatuz okasiorako orduko diskurtso hura.

rrik da horixe euskara ikasteko zeinnahi metodoren lehen orrialde beretik irakasten dena ¹.

Nik, ordea, nire aldetik beti sentitu dut nola nire belarrietako euskaldunek, benetako horietakoek, ez zuten beren aditza inoiz gehiegi atzeratzen esaldian, kasuan *urrutizkina* ere esaten ez zuten bezala telefonoari deitzeko. Eta pentsatzen hasita, nik neronek ere apenas batere atzeratzen nuen aditza nire mintzo arruntean. Hori nire lotsarako izan da urte askoan. Baina orain ziur naiz ez naizela bakarra, askok izan dugula antzeko kezka geure buruan, eta behin baino gehiagotan irakin digula barrenak halako kulpa sentimendu batean, pentsatzen, nire txikitako erdaldun peto haien oihartzun, guk gerok ere oraindik ez dugula zoritxarrez euskara behar bezala hitzegiten, oraindik gaudela alor honetan behintzat zeharo erdaldunduak.

Nire urteak aurrera joan ahala, ordea, ez da hori izan azkenera nik bildu ahal izan dudan ondorioa. Zeharo bestelakoa baizik, euskara, piskanaka, gero eta sakonagotik aztertu ahal izan dudan neurrian, eta eraberean batean eta bestean gero eta hurbilagotik ezagutu ahal izan ditudan heinean bazter eta garai dibertsoenetako euskaldun benetako horietakoen hizketa moduak eta ere modu idatziak.

Labur esan, bi izan dira batez ere urte guztiotan piskanaka pizten joan zaizkidan susmoak. Bi beldur, azkenean aztertzeko parada ere izan dudana euskararekiko urtetako hurbiltze honetan.

Bata, aditza atzeratzearena bera ere ez ote zen zeharo berrikuntza gordin bat gure hizkuntzaren sisteman, zeharo artifizialki bultzatu eta indartua azken mende honetan, *urrutizkina*-rena edo beste hainbeste berrikuntza bezalatsu, eta hauek guztiak bezala gainera zeharo arrazoi extralinguistikoak eragina.

Bigarren beldurra, berriz, kezkagarriagoa, aditza atzeratzearen berrikuntza honek ez ote zion bere aldetik mesede baino kalte gehiago egiten berez euskaraz ere hizkuntzaren lehen helburu funtzional eta komunikatiboa behar lukeren hari. Izan ere, nire begi bistako euskaldunek, kualifikatuenak direlarik ere, eta nik ezagutzen dudan hein guztian behintzat, ezin baitiote, ezin baitiogu, nahita ere kasurik egin aditza atzeratzearen preskripzioari bat-bateko mintzotan. Ordea, nahikoa da gainetik irakurtzea Altubereren *Erderismos* edo beste, bertan jabetzeko ahozkotasanaren aitzakia dela lege horiek euskara baitan nolarebait sustraitu nahi eta ahal izateko zentzuzko argudio bakarra ².

1. Hala nola dioen, esateko, gaur eguneko euskara ikasteko metodoetako baten sarrerak aurre-abisu modura bere frantsesezko argitalpenean (*Euskara ikasteko metodoa. Nouvelle méthode de Basque*. X. Gereño. X. Gereño, Bilbo, 1980, 5 or.. Traduction et adaptation, T. Trifol.): «Caractéristiques essentielles de la langue basque. / b) Construction des phrases avec un ordre différent aux langues latines. / Dans les phrases affirmatives le verbe est presque toujours placé à la fin, précédé toujours des idées principales.» Eta antz batera ere, adibide, J. Allières euskaltzain ohorezkoak bere *Manuel Pratique de Basque* liburuan eta tipografikoki ongi azpimarratuta (1979, Paris, A.&J. Picard, 38): «..., la forme personnelle du verbe -si le syntagme en contient une- occupe la dernière place dans le syntagme, sauf si elle est accompagnée d'une negation, ...» Eskerrak, hala ere, autoreak segidan bertan aipatzen duen euskal sintaxiak eta estilistikak orain artean izandako deskribapen mailaren eskasa: «La syntaxe et la stylistique du basque parlé n'ont été du reste que très rarement décrites, et constitueraient un excellent domaine d'investigation.» Ez da, ordea, segurasko bakarrik ahozko euskara, erantsiko dugu guk, guztion ikerketaren faltan dagoena arlo hauetan.

2. Bestea antierderismo soila baita.

Beste alde batetik, berriz, nik ere ez dut ezer berririk asmatuko baldin esaten badut aditza atzeratuta daramaten testuok, gaur eguneko ohikoena, zinez direla beste inoizkoak baino askoz astunagoak eta nekezagoak irakurtzeko eta bat-batean ulertu ahal izateko irakurlea testua irakurtzen doan bezala. Arazo bat, kurioski, inola ere aurkitzen ez dena aditza ohi bezala aurreratuta erakusten duten gure tradiziozko testuetan. Eta esan bezala, ez dut uste inpresioa bakarrik nirea den ³.

Gaur eguneko prosa moldea eta euskara

Segurasko denok gatozke bat pentsatzen nola gaur eguneko prosa idatzi hau, ulergarritasun arazo bereziak dituen barne, bereziki saiaturen den betetzen mende honetako joskeraren bi lege nagusiak edo direnak eta konsensu haundienekoak diruditenak gaurko prosista eta gramatikalarien artean. Bat, *galdegaiarena*. Bestea, berriz, aditza esaldi subordinatuetan derrigorrez-edo bidali nahi duena beti esaldi amaierara. Bi hauei erants lekieke oraindik hirugarren bat, filosofia orokor modura edo, eta esango lukeena, Altuberen hitzetan: [Beti] Debe procurarse empezar la oración por su miembro *más largo* ⁴ [eta aditza honen ondoren-edo eman].

Eta bi/hiru lege hauen ondorio gertatzen da batez ere aditzaren atzeratze orokorra gaur eguneko testuetan ⁵.

Gauzak, ordea, ez dira beti horrela izan gure artean, eta ezta ere dira beti hala gaur egun sikiera. Esateko, puntu hauetan ezin desberdinagoak ageri dira, alde batetik, gaur eguneko prosa idatzi estandar hori, eta bestetik, 1900a bitarteko beste guztia. Datu zentralen bat emate arren, eta gure estatistika xumea inola egiaren hurbileko gerta baledi ⁶, idazle klasikoek ⁷ batez beste %72an-edo emango lukete beren aditza esaldi nagusien aurrealde batean; aldiz, gaur eguneko prosa estandarrak zeharo alderantziz emango luke aditz hau esaldien atzealde batean kasuen %81,8an-edo ⁸. Autore klasikoon testuetan batez beste %18,6 esaldi inguru amaitzen da aditzaz, eta beste hainbeste-edo hasi (%18,1). Gaur egungo testuetan, berriz, esaldi nagusien %39,2a amaituko da aditzaz (klasikoen batez besteko doblea baino gehiago), eta aldiz, soilik esaldien %1,4 edo hasiko, hutsaren hurrena.

Nolanahi beste bat da gure estatistikaren emaitza gogoangarriena. Bada, beharbada arrunkien usteko litzatekeenaz bestela, gaur egungo prosa estandar idatzi hori klasikotik bezainbeste urruntzen da ezagun ditugun aho mint-

3. Ikus, besteak beste, J.R. Zubimendi eta P.Esnal-en *Idazkera-liburua*-n «Joskera» atala (Eusko Jaurlaritz, 1993, 133-235).

4. S. Altube, *Erderismos* (1929, 309).

5. Aditz eta sintagma buruen atzeratze orokorraren hirugarren kausa garrantzikoenetakoa da bestalde XX. mendeko euskal prosak ezagutu duen *zeinismoaren* baztertze basatia, hau beste biak ez bezala erabatekoa izan dena mugaz bi aldeetan ere.

6. Datuak bere zabalean jasotzen dira gure *Hitz ordenaren estatistikak euskaraz* lanean (1994, argitaragabea).

7. Aztertu autore eta testuak izan dira: J.A. Mogel, *Peru Abarka* (1802), bizkaiera (Durango 1881-faksimila, 1981-); J.B. Agirre Asteasuakoaren *Eracusaldiac* (1808), gipuzkera (Tolosa, 1850-faksimila, Hordago, 1978-); J.P. Duvoisin, *Laborantzako liburua* (1858), lapurtera (EEE, Donostia, 1986); J. Etxepareren *Buruchkak* (1910), behenafarrera-lapurtera berria (EEE, Bilbo, 1992). Eta XIX. mendeko sortzezko lau lan hauen aldean, baita ere Axularren *Gero-a* (1645), lapurtera (Jakín, Arantzazu, 1976), gure literatura zaharreko sortzezko libururik liburuena delakoan.

8. Hala aztertu dira A. Lertxundiren *Karla* nobela, *Euskaldunon Egunkaria* eta *Argia*-ko testuak.

zaira guztien moldeetatik ere; hala hitzun jantzi nola ez-hain-jantzien mintzoetatik ⁹; bai, gaur eguneko zeinnahi moldetatik, nola ere, esateko, aurreko mendetik iritsi zaizkigun aho-hizkeraren oihartzunetatik ¹⁰. Kurioski, aho molde guztiok ere ez dira batere aldentzen gure prosari klasikoek erakusten dituzten hitz ordenamendu joera nagusienetatik. Eta hainbat eta gutxiago gainera zenbat eta finagotzenago den azterketa hitzun bakoitzaren esaldien luzeraren eta konplexutasun mailen arabera ¹¹.

Azterketa hauen ondoren jada soilik hipotesi batek izan lezake, den gordina izanik ere, lanerako indarra gure artean aurrerantzerako: *Euskaraz ez da inoiz, ez idatzi, ez hitzegin, gaur egun idazten den hitz orden moldean* ¹².

Hipotesia egia izatera, gordina baino gehiago ere balitzateke mikatza. Ze, aztertu euskara moeta idatzi zein ahozko horiek guztiak ez dute, oro har, erakusten arazo komunikatibo berezirik. Aldiz, bai erakusten duen bezala, ados gara gehienok, gaur eguneko prosa idatzi, estandar, beste guztien hain diferente den horrek.

Gure estatistikako esaldi idatzi zein ahozko posible guztien artean, galde-gaiaren legea ez litzateke beteko hirutik batean baino. Eta mendeko esaldietako legeak, berriz, huts egingo luke aditz jokatu esaldien erdian baino gehiagoan behintzat. Zertarako balio lezake orduan konsensuko bi lege horiek, ezpada oraindik bazterrak gehiago nahasteko? Datu hauek guztiak gainera ezin gehiago puze dira oraindik aztertutakoak esaldi luzeak edo direnean (5 edo konplementu gehiagoko esaldiak gure estatistiketan), eta badirenak, bestela usteko balitz ere, gure usualeko erabileretako erdiak baino gehiago (%51,0 gure korpusean).

Beharbada eztabaida litzake gehiago edo gutxiago guk estatistikak burutzeko erabilitako irizpideak. Baina hauek bere batzuk izan dira gure korpus osoa aztertzeko, oraingo zein lehengo testigantzak, ahozko zein idatzizko testuak, eta ez dago dudarik egiterik inola ere aipatu desberdintasun horien kalibrez, bestelakoan ere denon begi bistakoak direnak.

9. Hala aztertu dira hitzun ustez jantzien mintzoren artean, ETBko *Ados?* programako bi eztabaida saio *Eskola legea. Arazoak amaitu? (I eta II)* izenekoak (1993-II-22 eta 1993-III-1), edota bi euskaltzainek irratian eginiko saio labur bi. Aldiz, mintzo ez-hain-jantzien artean edo kontsidera litzake ETBko *Ados?* programako *Krisia ala hondamendia?* eztabaida saiokoak (1992-X-5), eta batez ere, R.M. Pagolak argitaraturiko *Euskalkiz Euskalki* dokumentuko testigantzak (Eusko Jaurlaritz, Euskara Zerbitzua, 1984).

10. Hala aztertu ditugu, W. Webster apaiz anglikarrak 1877rako Lapurdiko Sara inguruko herri-tarren artean eginiko ipuin bilduma folklorikoa, oraintsu arte argitara gabea euskaraz (X. Arbelbide, *EEE, Klasikoak*, 1993, bi tomo); eta ere bigarren bilduma bat, J.F. Cerquand-ek egina zuberera eta behenafarreraz jasotako herri ipuinen transkripzioekin eta 1874-1885 urteen artean argitaratua lehen aldiz (oraintsuago berriro A. Aranaren transkripzio egunekoatuz, bi tomotan, Txertoa, 1985-86).

11. Modu berean aztertu ditugu alderaketa baterako Mendibururen bi itzulpen lan klasiko ere, 1747ko *Jesusen Bihotzaren Devocioa* eta 1760ko *Jesusen Amore-Nequeei dagozten cembait otoitz-gai*, eta hala esan genezake kurioski hauek ere ez direla ezer asko aldentzen sortzezko lanen edo ahozko moldeen joera nagusi berrietatik, bai modu berean zeharo aldentzen diren bezala gaur eguneko joskera moduetatik.

12. Beste hipotesi posiblea litzateke pentsatzea, gaur egun herrian zabalduen dagoen moduan, denok zeharo erdaldunduak gaudela, eta hala daudela ere garai goiztiarrenetatik jasoak ditugun euskarazko testigantza guztiak. Hipotesi hau, ordea, sinistu nahi bada sinistu, inola ere frogatzen ezina da, eta okerrago dena, zeharo bilutsik uzten gaitu eta erdurik gabe, azken mende oso honetan utzi gaituen bezala, ahalegin ezin antzuaogotan beti euskal eredu jator, kimeriko eta antierderistenaren bila.

Altuberen aitzindariak XX. mende hasieran

Fama den bezala, ordea, bere soilean emateak Don Severo Altube -(1879-1963), arrasatearra eta Gernikako alkate izana-, lege berrion aurkitzailizat, guri behintzat artean inkognita garrantzitsu gehiegi uzten zigun airean konpontzeke ¹³.

Batetik, lege hauek suposatzen duten tradizioarekiko estilo haustura aditz guneari dagokionean esaldian, ez delako gertatzen pentsatzekoa litzatekeen bezala Altubek bere legeak emanez geroztik, lehenengo aldiz 1919an, baizik eta hainbat lehenago, XX. mendearen urratze inguruan. Orduz gero ageriko da Bizkai-Gipuzkoatan jada idazle saldo bat piskanaka piskanaka baina oso nabarmen joango dena eteten bitarteko tradizioaren hitz orden moldeekin, eta eraberean hurbiltzen piskanaka eredu berrietara, bitarteko beste inongo idazlek egin ez bezalako moduan.

Berritzaile horietako bat, dudarik gabe, Azkue, nahiz artean zeharo anti-altubetarrak izan 1891ko *Euskal Izkindea*-ren aurretik ezagutzen dizkiogun testuak ¹⁴; baita Pedro Migel Urruzuno ere piskanaka joango dena estilo berrira lerratzen; edo Txomin Agirre bera, oso nabarmen jada behintzat 1912ko *Garoa*-rako nahiz hainbat eta gutxiago aurreagoko lanetan. Joskera joera berri honen aztarnak ageriko dira garaiko beste zenbait euskaltzale bereziren artean ere, beharbada integristenetakoak edo dei genitzakeenak. Hala, Gipuzkoako lehen euskara katedradun, Jose Gaspar Oregi; edo Don Pio Maria Mortara italiar santutzakoa eta historia ondo bitxikoa; Sabino Arana bera duda gabe; eta ere behintzat Don Patrizio Antonio Orkaiztegi, Tolosako bikario langilea.

Hauen guztien ondoretik zabalduko dira gero mugimendu berriaren oihartzunak euskaltzaleen artera, Altuberen lanen aurretik ere. Hauen artean aipagarri: Luis Eleizalde, Ixaka Lopez Mendizabal, Ignazio Maria Etxaide, Lertxundi Baztarrrika, kurioski Don Manuel Lekuona eta Aita Joxe Migel Barandiaran biak (garaian gasteiztar biak), Paulo Zamarripa bizkaitarra, Gregorio Mujika gaztea, Toribio Alzaga bere bigarren garaiko antzez-lan igonahikoetan, Federiko Belaustegigoitia, Jose Zinkunegi, Aita Zabala-Arana, Manuel Arriandiaga, Juan Bautista Eguskitza eta Ebaristo Bustintza bera ere mailaren batean, nahiz segurasko beti diskolo samarra gertatu. Iparraldean, berriz, ziur ditu mugimendu honek oihartzunak J. Hiriart-Urrutigan, eta agian edo segurasko bere eta berak zuzentzen duen *Euskalduna*-ren bidez baita ere beste euskaltzale hainbatengan, zeinen artean nabarmen bederen Jean Barbier eta Aita Lhande euskaltzaina. Beharbada, hainbat gehiago ere bai ¹⁵. Hala, Altuberen legeek honek formulatzen ditueneko ere, 1919an,

13. Severo Altubek 1919an ematen ditu lehenengo aldiz inprentara *Euskal-Esnalea*-ren eskutik bere hitz ordenamendu legeak *De sintaxis euskérica* izeneko liburuskari; gero, hainbat eraskin eta aldaera txiki baina oso garrantzitsuren batekin berrargitaratuko dena 1929an *Erderismos* izenez, arrakastatsua bilakatuz. Geroztik, azken testu honen gainean egin da nolabaiteko konsensua euskal hitz ordenamenduari estuzko legeen inguru, eta hala legokioke Altuberi lege berrion aita izatearen sona.

14. 1888ko «Grankanton arrantsaleak» (*Euskera*, 1988, 379-389); eta 1889-1890 bitarteko «Peru Matraka ta Pedr'anton» (*La Abeja*, 1889-1890, I) eta «Iolas-aldia» (*La Abeja*, 1890, Urtarrila, 52-54).

15. Baina guk gehiegi aztertu gabe dugu oraino Iparraldeko mugimendua Jean Hiriart-Urruti eta *Euskalduna*-ren ingurutik gaur egunera arte.

aurkituko dute jada aurretik nolabaiteko oinarriren bat bederen euskaran barrena autore guztion estilo berritzailean.

Bestetik, Altubek konpontzen ez zigun bigarren inkognita ziren jada 1919a baino lehenago ere guk beste zenbait euskaltzalegan aurkituak genituen galdegai lege beraren nolabaiteko formulazioak. Bat behintzat, guk garaian ezagutzen genuen lehenengoa, Luis Eleizaldek eginikoa jada 1911rako ¹⁶. Beste bat ere honen antzekoa Don Manuel Lekuonak egiten zuena 1918ko urterako ¹⁷. Baina batik bat, Paulo Zamarridak egirikoa 1918ko urte berean «La idea capital en las frases vascas» egunkari artikuluan ¹⁸, bertan hitzez hitz ematen dituenean Altubek hurrengo urtean ofizialki aldarrikatuko dituen lege berberak galdegaiaren inguruan. Kasuan ez bakarrik lege bat, generikoa, Eleizalde edo Lekuonaren oharretan bezala, baizik eta jada, hiru, lau, bost, edo gehiago lege ere, Altuberen moduan arazoaren kasuistika desberdina ukitzen. Bati, behin baino gehiagotan pasa ohi zaio burutik autore hauek guztiak ere ez ote zebiltzan, Altube bera barne, nolabait argitaratzen beste norbaitek emandako ikastaroetako oharrak edo antza.

Azkenik ezin ere erraz ulertu genuen nola Altuberena bezalako buru soil batetik, garaian nahikoa pertsonai iritsi berria eta pisu handirik gabea artean euskal letretan, lor zezaketen horren denbora gutxian halako arrakasta eta konsensu zabala mugimendu euskaltzalean, halako tesi berritzaile eta iraultzaileek, izaki hauek horren gordin eta arrotzak bitarteko tradizio guztiarekiko.

Azkue, aitalahehen

Gauzak bere onera ekartzen hasteko, ordea, inkognitak argitzeko, nahikoa izan zitekeen piramidearen erpin horretan Altube ahul bat jarri ordez esertzearekin Azkue bezalako pisu astun bat. Bestela ere bagenuen batetik eta bestetik susmo sail ugari bat Azkuegana bultzatzen gintuena mugimendua- ren sortzaile bezala. Azkenik, oraindik ere aspaldi gabe aurkitu genuen artean puzzlea osatzeko falta genuen pieza garrantzitsuenetako bat, oraindik ere nahikoa ezezaguna dena segurasko eguneko giro euskalariari.

1894rako ere ematen baitu jada Azkuek bere eskuz idatzia galdegaiaren oinarritzko erregela-edo litzatekeena. Eta hala arautzen du orduan ja argi asko: [Euskaraz] *Como se pregunta se contesta* ¹⁹. Eta segitzen du hala: *Esta regla suprema de construcción está explicada en la pág. ... / Esto quiere decir que si por ejemplo se pregunta ¿Non dago Txomin? se debe contestar: Txomin etxean dago*. Agintzen duen arren, ordea, testu berean Azkuek ez du beste inon gehiago garatzen jada ordurako ere *regla suprema de construcción* deitzen duen hau. Beharbada gordetzen dira oraindik nonbait Azkueren esku oharrak gaiaren inguruan ikerlariren batek aurkitu zain ²⁰.

16. «Raza, Lengua y Nación Vascas» lanean, *Euzkadi*, VIII, 1911, 265-267.

17. Gasteizko apaiztegiaren emaniko *Métrica Vasca* hitzaldiaren lehen ohar bitxian (M. Lekuona. *Idaz-lan guztiak. I. Aozko literatura*, 1978, 154-155).

18. «Ratos de Euskeralogía». *La Gaceta del Norte*, Bilbao, 2 de Noviembre de 1918. Bere laburrean biziki merezi duena ezagutzea.

19. Hala aurkitu dugu erregela emana Azkuek Bizkaiko Institutoko ikasleentzako bere eskuz idatzita multikopiatzen duen *Ensayo Práctico*-edo izeneko eskuizkribu bestela argitaragabea (*Tema* 15, 33 or.). Ale bat bederen gorde da Euskaltzaindiaren Azkue Bibliotekan, eta hau kontsultatu ahal izan dugu guk.

20. Eta oro har, sintaxiaren inguruko ohar orokorrak ere, badakigularik hauek biltzeko edo behintzat prestatzeko asmoa bazuena 1905-6ko hiztegiaren sarrerarako ere, askoz geroago bai argitaratuko ziren morfologiaren oharrak bezalatsu.

Lege honi erantsiz gero Azkueren beste izkribu ugarietan barreatutako iritzi jada ezagunak euskal hitzen ordenaren inguruan, erraz aurki genezake denen suma bezala aipatu Zamarriparen lana edota Altuberena bera ere urrutit haundirik gabe ia osorik ²¹.

Gure hipotesi hauen arabera, beraz, Don Sebero Altube ez litzateke izango finean Azkue beraren testaferroa baino hitz ordenaren kontuan. Nolabait, Orkaiztegi bera ere Azkueren testaferroa baino izango ez den bezala segurasko borroka antizeinistan ²². Ordezketasun horrek esplikatu luke erraz legeek horren denbora gutxian ezagutzen duten bilakaera eta arrakasta harrigarria.

Hala, ziurrenik Azkueren 1891ko *Euskal Izkindea* izango da jada joskera estilo berri batean idatzi nahi izandako lehen liburua ²³. Eta berriz, 1893ko Azkueren *Behin da betiko* kontakizuna lehena jada erabat idatzitakoa hitz ordenamendu estilo berri, esan dezagun, altubetarrean. Data horrez gero, zinez uste dugu Azkueren inguru fisiko-pertsonalean joango direla zabaltzen estilo berriaren aztarnak. Hasieran, Azkuek Bilbon Sabino Aranarekin batera argitaratzen duen *Apis* edo *La Abeja*-ko talde inguruan, edota Azkuek oposaketan irabazitako Bizkaiko Institutoko katedratik (E. Bustinza han ikasia zen, esateko). Gero, berriz, eta jada predikamendu gehiagor segurasko, *Euskalzale / Ibaizabal* aldizkariaren inguruan (Urruzuno, Zamarripa, Bustinza, Orkaiztegi, ...). Eta aurrerago jada eta Gipuzkoan, Orkaiztegi, Tx. Agirre eta abarren eskutik sortuko den *Euskal-Esnalea*-ren itzalean (T. Alzaga, G. Mugika, Altube bera, ...). Azkenik baita ere, Euskaltzaindian Azkueren ingurutik bilduko den hainbaten artean. Segurasko zabaldu zuen Azkuek bere ikuspegi berria Gasteizko apaiztegi inguruan ere, nora gogoratu uste dugun hedatzen zuela ere bere predikazio eta langintza (guk geok datu zehatzegirik ez dugun arren, hango kume azkuetar izan litezke M. Lekuona eta J.M. Barandiaran; Tx. Agirre ere han ikasia da edade bereko Azkuerekin batera).

21. Besteak beste, Azkuek 1891ko *Izkindea*-n ematen du agerian, lehen aldiz euskal letretan, mendeko esaldietako aditzaren legea (216 eta hurr.; eta batez ere 334 eta hurr.), gero 1894ko *Ensayo Práctico*-an errepikatuko duena nolabait (190 eta 213 orr.), 1896ko *Método Práctico*-an (119-20 orr.), *Hiztegia*, edota *Morfologia*-n ere 1925ean. 1905-6ko *Hiztegia*-n jasotzen da agerian *egin* aditzaren erabilera beste aditzen esannahiaren indartzaile bezala. Eta ere *Ba*-aurrizkiarena galdegaitasun kontuen inguru. Duda gabe ere Azkuerena da *ibili nabil* bezalako aditz errepiken patentea, berak erabilia lehen-dabiziko aldiz 1893ko *Behin da betiko* irakurgaiaren, eta autore-aurkitzaile berak esplikatzeko duena artean, Altubek ez bezala inondik, [como] *lindo y no muy empleado modismo, que a semejanza de frases hebreas por este tenor indica lo fatigoso del andar* (ik. irakurgaiaren amaierako hiztegi oharren artean). Esamolde bat, agi danean asko gustatu zitzaiona bestalde Sabino Arana berari, Azkuek *Morfologian* detaileekin kontatzen digun bezala (527 orr.), berriro ere esateraren *aitatasuna* erreibindikatzeko duen bitartean, eta berriro emanez esamoldeari inondik ere Altuberena ez bezalakoa den interpretazioa.

22. Eta izan ere, anaforikoen erabilerearen gaitzestea eta baztertzea XX. mendeko euskal prosa ereduaren (berau zeharo irauli duen bigarren ezaugarri nagusia, eman baitezakegu lehenengo delat aditz atzeratze orokorra euskal esaldian), guk dakigun bestean behintzat, lehenengo aldiz A. Hovelacque-k haiztuko badu ere agerian 1876-77an bere «La langue basque» kapituluaren (*La linguistique*, Paris, 1877, 2. arg., 148-167), gure artean Azkueren *Euskal Izkindean* erreibindikatzeko da lehenbizikoz eta indarrez 1891n, nondik segurasko geroko beste guztiak hegoaldean, eta beharbada, neurri batean iparraldean ere berriro Hiriar-Urruty eta *Eskualduna*-ren ingurutik; nahiz beharbada iparraldean *antizeinismoak* bere bide propio bat ere segitu ahal izan duen Hovelacque-Vinson katean. Gaia, uste dugu, aztergai dela oraindik eta ez interesik gabea.

23. Nahiz *Izkindea* gehiago lotua ageri artean, besterik gabe aditza erabat atzeratzearen eskola kardaberaztiar hutsaren joeretara (aurreraxeago aipatu duguna zeredozer gehixeago).

Urruti handirik gabe eremuotan bilduko da aipatu idazle eta euskalzale berritzaileen talde osoa.

Berrikuntzaren argumentazio ahula

Ordea, dela Azkue, Altube, edota beste zeinnahi, iraultzaren aitalehena edo gidaria gu denoi gaur egun barregura eman behar liguke Altubereren *Erderismos* bezalako liburu baten argumentazio antierderista soil eta *puerilak*. Ez da horrela gertatzen eta lotsa ere eman beharko liguke euskaldun bezala, eta are mina, oraindik ere gaur egun hitzez hitz defendatzen aritzen garenean nonnahi gure artean hango eta orduko tesi berberak²⁴. Eta aldiz, ebidentziak ebidentzia, inor gutxi ausartu da gure artean hauei aurre egiten²⁵. Beharbada zaila ere bazelako kontuotan gaitzeta altubezaleek bere kontrako guztiei itsatsitako *erdalzale / espainolzale* estigma, gure betiko mamua, bestalde ondo arrazoizkoa soziologikoki.

Azkue-Altubereren aipatu bi lege nagusiak, ordea, soilik sortu dira antierderismo hutsalenetik eta ez beste inondik. Ez inongo euskaratatik. Gainbegiratu besterik ez dago Altubereren *Erderismos*.

Itxuraz konparatu usteko da euskaraz eta gaztelaniaz konplementu bakarreko-edo esaldi sail bere bat, idazleak berak sortua edo aukeratua²⁶, gaztelaniaz *aditza + konplementua* segida erakutsiko duena, eta euskaraz, aldiz, beti alderantzizkoa, segidan bertan eratoritzeko, *quod erat demonstrandum*, nola bi hizkuntzak ordenamendu kontuan erabat diren antitetikoak. Ondorio ez harrigarria, esango da orduan, kontuan harturik hizkuntza arrotza beti prepositiboa den bitartean gurea beti dela pospositiboa, jada Urte eta Larramendiren garaietatik ere behintzat bagenekienez.

Ergo dekretatuko da aurrerantzean euskal joskera jator bakarria izango dela gaztelaniaren kontrakoa eta haren batere antzik ez duen hura. Nondik, hurrengo pausoa ez den besterik izango ondo jabetzea baino gaztelaniaren hitz ordenaz, honen negazio soil ezagutu ahal izateko bat-batean euskal hitz ordenamendu jatorra. Ia euskarari, euskal tradizioari, gure oinarriari, batere begiratu beharrik gabe sikiera. Eta hori egin da, eta egiten da oraindik ere egunero nonnahi gure begibistan. Are jakinduriaz betetako lekuetan ere. Eta zoritxarrez hori ez da *desde luego* euskaldunok eduki genezakeen modurik behintzat inteligenteena gaztelaniaren morrontzape latzenean erortzeko.

Ikuspegi zabaldu horretatik euskara jada ez da edo ez litzateke izango benetako euskaldunek, euskara benetan erabiltzen duten horiek, oraingo eta lehengoek, ahoz edo idatziz, gure artean komunikatzeko usatu eta usatzen dugun hizkuntza; baizik eta honen barne, soilik parte bat: gaztelaniaren bate-

24. Eta areago oraindik hauek esportatu nahian ibili izatea euskararen ezaugarri propioena eta bitxiena balitz bezala. Hain bitxia, egia esan, non ez den sikiera euskararena, izan.

25. Dakigularik behintzat, Orixe bere praktikan (ezen ezta ere teorian) Joxe Azurmendik gazti-gatzen digun bezala (*Zer dugu Orixeren alde?*, 1976); Mitxelena jada 1953tik (ik. «Arnaut Oihenart» hitzaldia, BAP, 1953, 459-462 orr.); eta honen ondoretik Aita Villasante bere lan ugarietan; beharbada baita ere Aita Justo Mokoroa; A. Irigoien artikulua interesgarri batean («Sebero Altube eta euskal hizkuntzaren pleguak», *Euskera*, 1980, 325-353); eta oraintsuago jada, J.R. Zubimendi eta P. Esnal beren *Idazkera-liburua*-ren aipatu «Joskera» kapitulu benetan ausartan, eta jada arrakastaren bat ere izan duena nonbait zorionez (ik. esateko, IVAP-HAEEek kaleratuko azken estilo liburua).

26. Ik. adibidez, *Erderismos*, 13.

re antzik ez duen hura, bestelakoan nahikoa eskasa ere dirudiena. Eta horrela, garaian beste esplikazioren beharrik gabe mende hasieratik gaitzetsiko dira hegoaldean, anatemizatuko dira, bitarteko tradizio literario guztiak, eta ere aho erabilera denak, haizatutako printzipioekin bat ez datozen neurri berean, eta denak daudelakoan erdararen minbiziak jota. *Euskara berria* nahiko da, eta hala egingo da.

Karikaturak karikatura, euskal inongo tradizioetan ez bezala, Azkue-Altubez geroztik euskaraz derrigorrez eman beharko da galdegaia aditzaren aurretik, gaztelaniaren kontrara, eta aditza, berriz, beti-edo esaldiaren atzealdean edo amaieran (hau derrigor mendeko esaldietan). Aurrerantzean ez du jada batere inportako ezagutzeak nola eman dituen benetako euskaldunak bitartean.

Eta euskararen halako definizio negatibo bat antzua baldin bada hiztegi kontuan ²⁷, zer ez da izango sintaxikoetan beste horrenbeste baino?

Eskola kardaberaztiarra

Ordea, Azkue-Altuberena ez da lehen aldia euskal letretan argumentazio bera erabili dena hitzen ordenamenduaren inguruan. Azkue-Altubek finean ez dituzte errepikatu baino egiten hitzez hitz Aita Kardaberazek jada 1760a ingururako haizatutako arrazoibide gordin berberak ²⁸, eta jada ordurako beren bide sendoa ebakia zutenak literatura giputzaren ereduetan behintzat ²⁹, urratsez urrats iristeko Azkueganaino Kardaberaz-Lardizabal-Arrue zubi arrakastatsuan.

27. Eta badirudi kostata izan bada ere ari garela piskanaka iristen konsensu horretara behintzat.

28. Esateko, jada honek *Eusqueraren berri onac* liburuan esaten duenean adibidez (1761, 58): «*Gaztelaniac beti aurretik dacarrena, eusquerac beti azquenerontz botatcen du...: eta itzac bere lecuan, Gaztelaniaren contra ifintce orretan Eusqueraren era eder, aire, edo chiste gucia dago.*» (Kanpionek bere aldetik gogoz berraizeratzen dituen hitzak bere 1884ko gramatikan, eta ziur beti Azkueren kilikagarri izango direnak.) Edo esaten duen bezala 1759 inguruan Kardaberazek orduan Aita Larramendiri hizketan, lehen aldiz 1968an argitaratzen den eskutitz batean, (J.I. Tellechea, *ASJU*, 1968, 10-11): «...*, el bascuence no tiene de suyo preposición alguna y todas son postposiciones y la gala está en postponer aun los verbos, que por lo regular caen así con mas elegancia.*»

29. Eta arrastoak ere zabalduak dituena behintzat Bizkaiko beste zenbait euskalzalegana eta are iparraldera. Ez alferrik idazten ditu jada Kardaberazek aditza atzeratzeko sistema berri gordin horretan bere bigarren garaiko testu guztiak, 1760-66 bitartean argitaratuak, eta gero, beren arrakasta erlijiosoz gain, mende oso batez iraungo dutenak gipuzkeraren eredu eta gorputz arrakastatsua bezala, beti Kardaberaz izen santuaren itzalean. Ez dira nolana sistema honetan idatziak Kardaberaz beraren lehen testuak, hauek bai besterik gabe tradizioari atxikiak. Hala, egiten ditu 1744ko *Christavaren vicitza* eta *Christavaren Icasvidea* oraintsu berraurkitu ditugunak, biak ere ezin interes gehiagokoak eta oraindik barrargitaratzaila zain daudenak. Kardaberazaren eskolakoak izango dira ere hurrengo mendean gehien zabalduko diren beste bi literato giputzen lanak: Lardizabal, XIX mendeko gipuzkeraren eredu, eta Gregorio Arrue itzultzaile arrakastatsua. Baita hein batean ere J.I. Gerriko bezalako beste autoreren bat (agian honen iloba J.I. Gerriko Urkiola bera ere), edota Aita Jose Ignacio Arana berantirragoa bera. Kardaberazaren lehen dizipulua nolana bizkaitarra izango da: Bartolome Olaetxea, Laukarizko *curea*, bere bizkaierazko dotrina arrakastatsuen bigarren argitalpenetik aurrera (bigarren hau egina kurioski goitik behera zuzenduz lehenengoaren hitz ordena modu duda gabe kardaberaztiar batean). Bestalde, ageriko dira Kardaberazaren filosofien ukituak Añibarroren gramatikan (gero kurioski, hitzez hitz Lardizabalek errepikatuak berean), eta haren azken urteetako berrargitalpenetan. Baita ere, Añibarrori sinistu behar badiogu, Mogelen azken urteetako ideietan (nahiz inondik ere ez obretan). Iparraldean, berriz, Duvoisin izango da arrasto kardaberaztiarrak erakutsiko dituen, bederen Kardaberazaren beste obra baten itzulpen nahiko librea den *Liburu ederrean* (eta agian geroagoko lanean ere nonbait).

Kardaberazen eskola hau, gure azterketen atal nagusi bat izan dena, ez da izango nolana ere geroagoko Azkue-Altuberena bezain fina. Aipuan jaso bezala, konsigna bakarra izango du amankomunean, eta berau basto samarra: *euskaraz aditza atzeratu beti, nonnahi, zeinnahi eta nolana ere esaldietan*³⁰. Eta horregatixe artean eskola hau tradizioetik bezainbeste urrunduko da ondorengo eskola Azkue-Altubetarretik, kontzeptu finenetan bederen, biak antz batekoak izan arren. Ze azkenik biak bizi ditu filosofia antierderista berberak, filosofia bat zoritxarrez horrexegatik ere berez bihurtzen dena antieuskalduna. Azkue-Altubek finean ez dute egingo eguneratu baino, zibilizatu, modernoagotu, Kardaberazen eskola gordin artifiziozko hura modu irensgarriago batera.

Eta guri behintzat hala iruditzen zaigu gure letren historia ezagutzen dugun heinean, soilik bi eskola hauek direla bakarrak historia oso horretan nabarmen apartatzen direnak gure tradiziozko molde idatzi eta aho erabileteratik. Bi eskolak gainera ondo jakinaren gainean egiten dute jauzi hori, biak zeharo motibazio extralinguistikoak eraginak, eta biak ere ondorio benetan gaiztoak eraginez hizkuntzaren helburu komunikatiboei dagokien aldean. Begiratu besterik ez dago batzuen eta besteen testuei³¹.

Euskarazko hitz ordenaren oinarritzko legeen bila

Ze, Kardaberazek edota Azkuek eta Altubek haizaturako legeak ez badira euskararen hitz ordena gobernatzen duten legeak, zein dira orduan lege horiek, legerik baldin badago? Edota behintzat, zein dira hitz ordena horren joera nagusiak?

Sinplifikazio eta laburbiltze guztiek duten arriskuarekin, guk benetan uste dugu hiru ardatz sendoren inguru egin beharko genukeela lan aurrerantza, behin betikoz ahaztuaz dagoeneko galdegai legeak, nola mendeko esaldietako derrigorezko aditz atzeratzearenak. Hiru ardatz nolana ere ez direnak izango inola berriak gure artean, eta bakoitza ere baduena bere nolabaiteko tradizioa euskal gramatikarien harian, nahiz maiz erakutsi diren oinarritzko ardatz hauek batere beharrik gabe Azkue-Altuberen beste bi sasi-lege horien mendean.

30 Eta hala egin nahiko dute sistematikoki eta artifiziarki mendeko aditz guztiekin. Baina baita esaldi nagusietan ere, maiz oso eten nabarmenak eraginez, eskolaren ezaugarri izango direnak, esaldian zeharo artifiziarki aurreratutako galdegaia eta guztiz artifiziarki atzeratutako aditzen artean. Atzeratutako dituzte ere ezin artifizialago eta hainbat sistematikoki galderetako aditzak, ezezko esaldietakoak, eta aginterazkoak benetazko egitura bitxiak eraginez maiz. Baita ere neurri sinisgaitzenetaraino Larramendik Kardaberazenean salatu moduan (*ASJU*, 1968, aipatu korrespondentzia), esaldi justaposatuetako aditz laguntzaile bakarrak. Oro har, eskola saiatuko da ere sistematikoki atzeratzen bestelakoan esaldi aurrealdean ere behintzat eman ohi diren elementu konjuntiboak (nahiz hauetaz ez dugun garaian inon aurkitu erreferentzia edo aipamenik).

31. Interesgarria ere bada zentzu honetan besteak beste ezagutzea Orixe berak Kardaberazi egini-ko kritika zorrotza («Euskal-literatura'ren atze edo edesti laburra», *Euskal Esnalea*, 1927, 230 or.): «Kardaberaz. Euskera ez du garrbia, errderakeri asko, ta idaztankera ez euskalduna geienaz. ... Bere burubide ta burutapenak oso errderaz errnatzen zituen eta euskeraz ezin esan; ...»

1. Lehenengo, eta esate arren Euskaltzaindiaren hitz bereetan, euskara hitz ordena aski libroko hizkuntza dela ³².

2. Bigarrena, berriz, eta aurreko printzipioa bezain garrantzitsua izango dena, euskarazko hitz ordena libro honek ³³ baduela konstriktzio nagusi nahikoa gramatikalizatu bat bederen aditzaren joskeraren inguru, eta gainera oso nabarmen bereizten gaituena, esateko, aldameneko gazteleraren joskeratik ³⁴. Konstriktzio bat, ordea, gure ustez eta zoritxarrez oso ondo definitzen jakin ez duguna orain arte euskal gramatikaren alor honetara hurbildu garen beti gehiago edo gutxiagoko zaletuok. Bada, hain zuzen konstriktzio honen nolabaiteko formulatu nahian piztu baitugu Azkue-Altuberen eskutik galdegai legea, egiazkoa ez dena; edo postulatu ere dugu, Kardaberazek edo beste hainbatek, euskal aditzaren ezaugarri positibo orokorra, berau ere egiaz bestelakoa ³⁵.

Guk, zerbait finago josi nahian, definitu nahi izan dugu konstriktzio hau euskararen «Xà» edo «aditza bigarren» fenomenoaren bezala ³⁶. Zeinak esango

32. Euskaltzaindia, 1987, *EGLU-I (Eraskina)*, 22 or. eta hurr. Libertate printzipio bat nolana hiri ere aspaldi zuena eskola egina gure iparraldean bederen, aldiz, frantzesari historikoki eta nahikoa artifizialki beti inposatu zaizkion ordena zurruntasunen aurrean, eta lehendabiziko aldiz M. Harrietek aldarrikatzen duena agerian gure artean jada 1741ko urtean (*Gramática escuaraz eta francesez, ...*, 501 or.: «*On place dans la langue basque indifferemment, le cas devant les verbes comme salcen dut ene etchea, ou ene etchea salcen dut, je vends ma maison.*»). Eta haren ildo beretik errepikatuko dutena gero, bakoitzak bere adibide gehiago edo gutxiago erantsiaz, ondoretik iparraldeari lotuta ageri zaizkigun gramatikari gehienak, eta zeinen artean, besteak beste behintzat, Lècluse, Darrigol, Txaho, Intxauspe, Darthayet, Gèze eta Ithurri. Hegoaldean, berriz, suma liteke halakorik oso zeharka izango bada ere Larramendiren 1929ko gramatika, eta ageriagoan jada Lardizabalenean (*Gramática Vascongada*, 1856, 81) eta Kanpionenean (1884, 51 eta 782), nahiz bi hauek ere sutsu predikatu ondoren eta batera arau kardaberaztiarrak, eta lehenengoak bederen gogotik praktikatu ere azken hau. Ez gara beraz oso gauza berriez ari ordenamendu askatasun hori aldarrikatzean.

33. Alde bat utzita hemen funtzio sintagma bakoitzaren barne aurkitzen diren ordena konstriktzio edo zurruntasun agerikoak (adjetiboaren kokagunea, ...), orain funtzio sintagma horien arteko konbinatoria posibleaz ari gara.

34. Nahiz ez hainbeste frantzesetik, eta beharbada horretatik ere badatozkiguke gure bi aldeetako tradizio gramatikalen desberdintasunak puntu honetan.

35. Printzipio bat nolana hiri eta kurios asko J.B. Arxu ezin antiekardaberaztiarrago batek emango duena lehen aldiz inprentara bere 1852-53ko *Uskara eta Frantzes gramatika* esaten duenean (2. arg. 1853, 47 or.): «*Ez abantz beraz Frantzes hizkuntzan, Pronom eta Verbe deitzen diren hitzak yarten direla ordenariozki beste hitzen aitzinean; Uskaraz aldiz yarten dira beste hitzen ondotic, nola: Berrogoi-ta-sei dira: Ils sont quarente six. Zazpi alhaba ditu: Il a sept filles. Eiche bat nuen: J'avais une maison.*»). Justu F.I. Lardizabalen 1856ko gramatikako errebindikazioaren aurretik (*Gramática Vascongada*, 1856, 81 or.). Bada, lehenagokoak izan arren, aipatu Kardaberazek eskutitza ez da argitaratzen 1968ra arte, eta Añibarroren gramatika eta oharra 1969ko urtera arte. Jakingarri, J. Ithurrik ere badu antzeko errebindikazio bat bere gramatikaren azken orrian (*Grammaire Basque*, 1895-..., 446): «*Dans la conjugaison absolue, le verbe Da [hau da, izan], employé comme non auxiliaire, se place à la fin de la phrase.*» Oharra, nolana hiri ere, argia ikusiko ez duena 1916a arte, nahiz 20 urte lehenago idatzia izan.

36. Hain zuzen, J. Wackernagel-ek indoeuropararen elementu gramatikal enklitikoentzako haizaten duen fenomenoaren antzekoa («Über ein Gesetz der indogermanischen Wortstellung», *Indogermanische Forschungen*, I, 1892, 333-436), eta geroztik haren ildotik Marouzeauk ere latinarentzako (*L'ordre des mots dans la phrase latine*, 1922, 1938, 1949). Fenomeno bat, bestalde, beste jakintsu hainbatek ere aztertut duena hizkuntza germaniko dibertsoen alorrean, eta guregandik hurbilago ere aurki dezakeguna frantzesean, edota are ingelesean, nahiz jada bi hauetan beste gramatikalizazio maila batean, beren hizkuntzak ia erabat derrigortzen dituztenean *sujetoa + aditza* segidetara (ikus liteke den hauen gainean, J. Haiman, 1974, *Targets and Syntactic Change*, Mouton, The Hague, Paris). Fenomenoaren jasozen edo aipatzen ere du behintzat Chomskyk (*Barriers*, 1986), eta gure artean hari horretan Ortiz de Urbinak (1988, «Operator movement and verb second phenomena in basque», *ASJU*, XXI-2, 321-355). Euskararen aditz joskerari lotuta berriz aipatzen du jada fenomenoaren Mitxelena ere bere *Fonética Histórica Vasca*-n (2. arg., 1976, 420-1 orr.), non besteak beste aipatzen ere den R. Thurneysen-en lana hari beretik frantzes goiztiararen inguru. Baita ere geroztik Aita Altunak *Versificación de Dechepare* liburuan (1979, 33), honen zenbait sintaxi bereiztasunen inguruan.

lukeen gutxi gora-behera: euskal aditzak, «a», joera nagusia duela beti bere multzo fonikoaren mugetan, ondoretik erantsita joateko bigarren elementu atono bezala edo, enklitikoki, «`», bere aurrean emandako esaldiko beste elementu toniko bereziki labur edo oso labur bati, «X» (eta horretatik «Xà» fenomeno) ³⁷. Eta ez, hain zuzen, galdegaiari Azkue-Altubez geroztik predikatu ohi den bezala ³⁸. Egia esan, ez da fenomeno hau baino euskaraz oso bereziki aurkitzen duguna konplementu bakarreko-edo esaldi labur haietan, eta zinez egon dagoen bakarra finean Kardaberazen edo Altuberaren antzeko formulazio guztien oinarrian ³⁹.

37. Fenomeno bat nolana ere ezin defini daitekeena ere joera bezala baino, eta berez salbuespen eta haustura ugari ezagutuko duena, nola frogatzen duten besteak beste euskaraz ere nahikoa maiz zuzenean aditzaz hasten diren esaldiak (gure estatistikan, aztertu baiezko esaldi nagusi konplementudun guztien %14,3a, zeinetako % 5,9a ere baden -hau da, guztien %0,8a edo- zuzenean aditz trinkoz hasia; edota, mendeko esaldi jokatu konplementudunen arteko %12,2a, eta %10,2a mendeko esaldi konplementudun jokagabeen artean). Eta badirudi gainera fenomeno hausteko nahikoa ote duen hiztunak, beti bere aukerara, aditza bera bakarrik ematearekin multzo foniko independente batean, edota are bere multzoaren hasieran ere hara eramanez multzoaren gailur fonikoa.

38. Ezpada salbuespen bezala, guk konplementuka aztertutako esaldien %6,6 inguruan, eta bereziki galdegai hau laburra den kasuetako batzuetan (eta beti hiztunaren aukeran hala ere), edota bestela, hiztunak bategatik edo bestegatik aditza eta honen multzo fonikoa esaldi amaierarako uzten duen kasu guztietan edo ia behintzat guztietan (esaldien %29,9a guk konplementuka aztertutako esaldien artean), eta orduan jada, bai, ia salbuespen gabeko lege gisa formula litekeena agi danean, bere aldetik Euskaltzaindiak ere gogoangarriki jasotzen duen bezala bere oharretan (aip. art., 1987, 41 or. eta hurr.). Horregatik oraindik erants dakioko «Xà» edo «aditza bigarren» fenomenoaren goiko definizioari beste azken zertzelada bat (hemen kurtsiban), esanez: «Euskal aditzak, «a», joera nagusia duela beti bere multzo fonikoaren mugetan, ondoretik erantsita joateko bigarren elementu atono bezala edo, enklitikoki, «`», bere aurrean emandako esaldiko beste elementu toniko bereziki labur edo oso labur bati, edota are tonikoenari, «X», hiztunak zeinnahi kausarengatik elementu tonikoen hau ematen duen guztian aditza bera baino lehenago esaldian.» Eta honen argitara bai, berdefini daiteke beharbada galdegai lege bera ere nahi izanez gero parametro berrien arabera, esanez jada behingoz: «Euskaraz galdegaia zeinnahi lekutan joan litekeela esaldian aditzaren ondoretik, maizenik gertatzen den bezala, euskal esaldien bi herenetan edo; edota bestela, aditz horren aurre justuko gunean ere multzo beraren gailur foniko bezala, aditza enklitikoki arrastatuaz bere ondoretik, baldin zeinnahi kausarengatik hiztunak galdegai hau ematen badu esaldian aditza bera baino lehenago, euskarazko esaldien heren baten inguruan gerta litekeen bezala, eta oso bereziki esaldi laburretan, areago oraindik oso galdegai laburra dutenetan, edota are bereziago oraindik hiztunak bere aukeran aditza esaldi amaierarako uzten duen guztian -hamarretik hiruan edo gure korpusean-»

39. Litzateke fenomeno bat, lehen maila batean eta batez ere, aditz jokatuie legokiekeena; baina zabalduko litzatekeena ere beste bigarren, hirugarren, edo *n*-garren maila batzuetan, aditz jokatu honen perifrasi modu desberdinetara [eta eraberean ere bai segurasko, euskarazko beste hainbat junta-gailu, lokailu, eta antzeko hitz enklitiko gramatikalizaturari ere]. Egitura honen adibide oinarritzakoena litzateke, lehenik eta behin, euskal aditz laguntzailearen joera ia erabatekoa aditz partizipio nagusiaren ondoretik agertzeko beti baiezko esaldian. Fenomenoaren beste adibide nagusi bat litzateke ere, euskal aditzaren ohiko joera beti ondore justutik erantsita agertzeko galdegileari. Baina fenomeno bera aurkituko dugu ere bestelakoan, euskal aditz jokatuena joera nabarmena aztertean beste hainbat partikulari ere erantsita agertzeko, eta zenbait kasutan ohiko *partizipio nagusi* → *aditz laguntzaile* segida kanoniko bera ere hausteko gauza direnak. Hala, esateko, eta batik bat, *ezezko* esaldiak; edota, oro har, inbertsiozkoak deitu ohi direnak ere. Eta fenomeno beronen eremuatan aztertu beharko genuke, *ote* (*ete*), *omen* (*ei*), *bide*, *al*, (galderazkoa) *ahal* (desirazkoa), eta *bait* (menderatzailea) bezalako partikula modalek berez duten gaitasuna aditza bere ondoretik arrastatzeko, eta berriro, ohiko *partizipio nagusi* → *aditz laguntzaile* segida bera ere hausteko. Oso bereziki ere aztertu beharko litzateke «Xà» fenomenoaren manifestazio bezala, *ba-* partikula baieztailearen jokaera aditz trinkoarekiko (eta are kasua ugariagia izango ez bada ere, aditz konposatuekiko). Eraberean «aditza bigarren» fenomenoaren ikuspegi honetatik begiratu behar lirateke, *ahal*, *ezin*, *behar*, *nahi*, *gura*, *egin*, *uste*, *izan*, *gogo*, *hurren* (*hurran*) bezalako aditz partikulen joskerara joera bereziak, hala baiezko nola ezezko esaldietan. Halaberean, noski, euskal aditzak duen ohiturazko joera ere beste zeinnahi klasetako hitz edo partiku-

3. Esan bezala bada, euskara ordena libroko hizkuntza bada bere funtzio elementuen ordenatzeko esaldian, eta ordena honen konstrikzio gramatikal ia bakarria baldin bada euskal aditzaren joera nagusia beti bigarren elementu klitiko bezala edo agertzeko bere multzo fonikoaren barne, postulatu beharko dugu azkenik, nola funtzio elementu horien ordena esaldian, edo bestela esan, esaldiko multzo foniko desberdinen erreskada gobernatu beharko duten, oro har, eta beste trabaren ezean, diskurtsoaren komunikazio legeek, izan hauek funtzionalak, pragmatikoak edo estilistikoak, baina bestelakoan oro har nahikoa unibertsaltzat ere ematen direnak hizkuntza bakoitzaren partikularitateen gainetik. Hala defendatzen zuen jada argi gure hitz ordenamenduaren hirugarren ardatz nagusi hau E. Osa-k ere bere 1990ko *Euskararen hitzordena komunikazio zereginaren arabera* liburuaren lehen hiru kapituluetan ⁴⁰.

Eta maila honetako lege edo joera nagusi bat bederen aipatze arren, bera izan litekeen neurrian gainera zabalduena edo ezagunena, esaten duen hura, esaldietako elementuen ordena antolatzen dela, beti ahalik eta komunikazio argienaren mesedean edo nahian, *tema* → *rema* edo *mintzagai* → *irazkin* segidan ⁴¹. Lege bat oro har eskatuko duena esaldi hasiera aldera ematea beti esaldi honen *marku predikatiboa* eraikitzen duten elementuak, hala *tematikoak* nola *modalak* ⁴², eta jeneralean izan ohi direnak esaldiko elementu laburrenak ere ⁴³. Gero bakarrik emateko, ondoretik, marku tematiko horretako

la anaforiko, adberbial edo laburren ondoretik erantsita joateko: *hala, han, laister, beti, ongi, nekez, sarrri*, eta baita ere, *bistan da, argi dago, egia da, ...*, edo antz bateko beste milaka egitura, eta berez naturaltasun osoz bideratzen dutenak beti euskal hitzuna aditza esaldi aurrealdean eman ahal izatera eta, aldiz, esaldiaren pisu informatibo nagusia utzi ahal izatera beti esaldi amaiera alderako, komunikazioaren lege edo joera unibertsalek gomendatuko luketenaren ildoan. Legea, noski, zehaztasun gehiagoan aztertu beharko da, baina guk jadaneko ere zinez uste dugu halako formulazio batek askoz hobeto esplikatuko lukeela euskararen jitea, euskararen joskera tipologia, Azkue-Altuberren sistema herrenak baino, eta oro har, askoz egokiago lotzen zaiola hura baino gure alde eta aldi guztietako euskal ahazko eta idatzizko esperientziari eta estatistikei; legeak eraberran esplikatuko lituzke orain arte baino fundamentu piska bat gehixeagoz gure joskeraren desberdintasunak gaztelaniakoaren aldean, zeinak izan diren nahi edo nahi ez gure gaur egungo joskera mamu guztien sorrera eta arrazoia.

40. Nahiz ondorengoetan autorea eta euskarari dagokionean erabat lerratzen den berriro Azkue-Altuberren tesiatar, guztiz ahaztuz orduan lehen kapitulu bereetako ikasia eta kontraesan nabariak haiekin.

41. Euskaltzaindiak ere ongi gogoratzen duen bezala 1987ko artikuluan.

42. Hau da, oro har, esaldien lehen alde batean finkatuz, batetik, ze elementuren gainean edo inguruan predikatu nahi den (*marku tematikoa*); eta bestetik, finkatuz ere esaldi hasiera aldera, oro har, honen *marku modala*, ulertzen lagunduko diguna ze modutan interpretatu beharko den ondorengo predikazio guztia (ea galdera bat izango den, edota ezezko esaldi bat, agindu bat, baieztoko esaldi enuntziatibo arrunt bat, edota ustezko esaldi bat, ahalezkoa, mendekoa, ...).

43. Bereziki, esaldiaren aurreko testuinguruarekin lotura zubia egiten duten elementuak batetik, eta bestetik, esaldian jada ezagunak diren elementuak edota bederen aurrerantzean ezaguntzat eman nahi direnak, ondoren hauen gainean predikatuzko. Baita ere, eta oso bereziki, esaldiaren interpretazio marku modala emango edo aldatuko luketen elementuak: besteak beste, *ote, omen*, edo *ez* negatzailearen antzeko partikula modalak; baita beste hainbat adberbio edo partikula ere kasuan esanguratsuak, eta bereziki modula lezaketenak kasuko aditz edo esaldi osoaren esannahia; oso bereziki hala, ententimentuzko-edo aditzak hauek ere zeharo baldintzatuko duten neurrian beti esaldiaren interpretazio zuzena.

elementuen inguruko benetako predikazioa, aldiz osatu ohi dutena jeneralean esaldiko elementu ezezagunenek, berrienek, eta ere, oro har, luzeenek ⁴⁴.

Hain justu, gaur egun Azkue-Altuberen legeen eraginez egiten dugunaren guztiz kontrakoa. Ez dugu hala segurasko aldrebeskeria gehiegia egingo, baldin perspektiba berri honetatik hasten bagatzaizkio begiratzen aurrerantzean gure prosa idatzi estandarrak horren maiz erakusten dituen arazo komunikatiboei, jada J.R. Zubimendik eta P. Esnalek ere zorrotz iragarritako bidean.

Euskal aditzaren berezko gunea esaldien aurrealdean gure klasikoak legez, eta ez atzealdean

Aipatu azken lege edo joera bera ere, ordea, ez da izango gero salbuespen eta ñabardura ugari gabea. Areago oraindik, berau, beti ere, lege edo joera pragmatiko edo estilistiko bat baino gehiago izango ez den neurrian, eta lotuagoa beraz beti hiztunaren subjektibitateari, honen desio eta ingurumari partikularrei, beste ezein parametrari baino, aurrez zeharo neurgarri eta pre-determinagarri.

Zehaztasun bat bai nolana ere komeni da egitea daukan garrantziagatik bederen euskarari dagokigunean. Bada, usterik arruntena izan litekeenaren kontrara, esaldiaren *tema* → *rema* moduko bipartizio batean hizketa errealean euskal aditzaren gunea oso maiz eta are maizenik ere ez da kokatzen erre-maren aldean, esaldiaren bigarren partean edo nolabait, baizik eta bestela, gehienean temaren barruan esaldiko marku predikatiboa eraikitzen, eta horrexegatik beragatik esaldi beronen aurrealdean gehienean, gure estatistikek dudagabe erakusten duten bezala ⁴⁵.

Eta izan ere, esaldi bateko aditzaren berezko garrantzi semantikoa maiz da esaldiaren oso parte garrantzitsua eta are garrantzitsuena esaldi honen *marku predikatiboa* eraikitzen. Bai, batetik, bere esannahiaren jiran kokatu ohi dituelako esaldiko beste elementu guztiak, baina baita ere, eta oso bereziki, aditz honen signifikazio zehatzak ezin gehiago lagunduko duelako lotzen beti esaldi berriko predikazioa eta marku predikatiboa aurreko testuin-

44. Ikuspegi hau, jada Greziako tradizio gramatikaletik ere badatorriguna Platon berak hasia, Europan joan den mendearan erdialdean hasten da berriro berreskuratzen H. Weil-en lan benetan interesgarri bati esker (1844, *L'ordre des mots dans les langues anciennes comparées aux langues modernes*), ordura artean Port-Royaleko gramatika "eskolastizistak" garaiko Frantzia indartsuan eta ere inguruko hizkuntzetan eragindako logizismoen kontrara. Ikuspegi nolabait funtzional hau berriro indarberritzen da gero mende honetako azken hamarkadetan, lehendabizi Pragako eskolako gramatikalarien ingurutik (Danes, Dezsö, Firbas, Palkova-Palek, ...), eta ondoren, bai hainbat estrukturalisten lanetan (Tesnière, Martinet, ...), baina batez ere gaur egunean lanean diharduten beste hainbat eskola gramatikal pragmatiko eta funtzionalisten bidetik (Brown-Yule, Dik, Feuillard, Feuillet, Givon, Hagège, Hoekstra, Kuno, Lehmann, Li, Venneman, ...), edota gramatika testuala garatu nahian dabiltzan haien eskutik (Dijk, ...), eta zeinen gehienen oso berri interesgarri ematen duen gure artean aipatu E. Osak bere liburuaren lehen hiru kapitulueta eta bibliografian.

45. Besteak beste, historikoki ere ez baitago zertan nahastu beharrik (bestelakoan horren maiz egina ohi den bezala, eta ez soilik gure artean), *tema* → *rema* bezalako segida bat, *suje-toa* → *aditza*-renarekin (Martinetek ere ongi aski gogoratzen duen bezala, besteak beste, «Thème, propos, agent et sujet» artikulua interesgarrian, *La linguistique*, 21, 1985, 207-220). Edota, bestelakoan guretzako beti ere hurbilekoa behar lukeen Schuchardten hitzetan esateko: «*Das Folgende ist immer Prädikat, das Vorausgehende Subject.*» («Atzetik doana da beti predikatu, aurretik doana sujeto»; cf. Lázaro Carreter, *Diccionario de términos filológicos*, Gredos, 3. arg., 331), ongi bereziki beti *suje-to* eta *predikatu gramatikala* batetik eta *logikoak* edo *psikologikoak* edo deitu ohi direnak bestetik.

guruarekin. Oso maiz aditz hau jaso arte esaldian, benetan zaio zaila entzule/irakurleari behar bezala kokatzen beren unibertso interpretatibo egoki batean bitartean jasotako esaldiko beste elementu guztiak. Hain zuzen horregatik ere kostatzen da gehiago arin, bat-batean ulertzea aditza atzeratuta daramaten testuak, aditz hau aurreratua erakutsi ohi dutenak baino ⁴⁶.

Baina ezaugarri nolabait unibertsal honez gainera, euskal aditzak badi-tu bestela ere berezko ezaugarri morfologiko paregabeak inguruko hizkuntzen aldean, oso aberatsak, oraindik areagotu ohi dutenak aditz honen berezko joera esaldi aurrealderako. Euskal aditzak bere barne eman ditzake ergatibo, datibo eta absolutibo/nominatiboaren pertsonak. Baita ere, denbora, aspektu, modu eta are interlokuzioaren ezaugarrien komuntadurak. Eta elementu hauek guztiak ere oso maiz dira lotura elementu ezin garrantzitsua-goak esaldiaren aurre-testuinguruarekin, eta beraz oso maiz parte ezin inportanteagoak esaldiaren *marku tematikoaren* eraikitzen honen aurrealde batean. Horregatik ere, aditz hau esaldi amaiera aldera emateak, gaur egun horren maiz egiten dugun bezala, berez lekarkioke iluntasun gehiago zeinnahi esaldi ez oso laburri euskaraz aditz berorren esaldi aurrealdeko beste edozein gune batek baino.

Hala bada, esan liteke euskal aditzaren gunea oro har ez dela izango esaldian oso atzealdekoa behintzat ezpada berriro esaldi laburretan. Eta gainera aditzaren aurrealdeko ohiko gune hau da, izan da eta izango da beti antidotik hoberena dislokazioak ere uxatzeko esaldi barruan, nola esaldien arteko katean, berez funtzioz edo esannahiz elkarrekin erlacionatutako elementuen artean. Eta behar genuen gaitz honentzako ere erremediorik, aditza horren modu antinaturalean atzeratzeak maiz sortzen diguna ⁴⁷.

Aurrerantzean bada, eta nolabait buelta txiki bat emanaz Azkue-Altuberen eskolako topiko erreziklagarrienetako bati, esan beharko dugu, ez direla hainbeste izango euskaraz ere akzio kontakizun arinak aditza berez esaldi aurrealdean eskatuko dutenak, esan ohi den bezala ⁴⁸, baizik eta alde-rantziz, hain zuzen, aditza aurreratzeak eman, ematen eta emango diola beti euskarazko zeinnahi testuri ere berez arintasuna, gehienez gainera entzule-irakurle sufrituak ongi eskertuko duena ⁴⁹. Argitasuna desio izanez gero ziur irabaziko dugu denok gure aditzak nabarmen aurreratuz testuetan, hain justu, gure belarrietako euskaldun on, benetakoez eta gure klasikoez egin ohi duten molde arin eta ongi ulergarri hartan.

Estilistikoki nolanahi euskaraz ez dio horregatik ere utziko berriro ordena libroko hizkuntza izateari. Oraindik segi ahal izango du nahi duenak nahi adina atzeratzen bere aditzak esaldian. Egin beza, ordea, hori ere, aurreran-

46. Cf. J.R. Zubimendi eta P. Esnalen aipatu liburuaren kapitulua, edota Villasanteren iruzkin etengabeak gaiaren inguruan.

47. Ik. ere berriro horrenbeste aipatzen ari garen J.R. Zubimendi eta P. Esnalen lana.

48. Cf. S. Altube, *Erderismos*, 1929, 58-60.

49. Nahiz eta gure deformazioa dagoeneko XX. mende amaiera honetarako handia ere baden, eta jadaneko zinez harritzen gaituen guztiok hala moduz idatzitako zeinnahi testu irakurtzeak. Hala nola gertatzen zaigun ere XX. mende aurreko testu anatemizatuak irakurtzean. Segurasko ekin beharko diogu denok ere oraindik gure buruak hainbat *desprogramatzeari*, hauek berriro hezi ahal izateko, nolabait esan, gure ahozko eta tradiziozko moldeetan.

tzean, jakinaren gainean bederen zenbat oztopa lezakeen atzeratze artifizial horrek testu bat beraren bat-bateko ulergarritasuna.

Nik aipatu behintzat nahi ditut egin gure XIX. mendeko sortzezko bi autore, bi eredu, bizkaieraz Juan Antonio Mogel eta gipuzkeraz Juan Bautista Agirre, aurrera begira dudarik gabeko maisu behar genituzkeenak hitz ordenamenduaren eremu latzetan hegoalde gatazkatsu honetan. Zorionez ekialde-ipparralderago biderkatu egiten dira ereduak gaur egunera bertara arte. Ipparraldeak ez du hegoko neurrian jasan mende hasierako iraultza bortitzaren eragina, han ere hau nabarmenagoa den arren egunetik egunera.

Euskara SOV? / Ez. / Euskara → SVO

Baguenen oraindik nolana beste korapilo bat ere artean nolabait askatu beharrekoa gure azterketetan. Izan ere nahikoa ustegabeen Azkue-Altuberen mende hasierako apriorismo aditz atzerazaleek oraindik berengatu ahal izango zuten babes berria nazio artean 60etako hamarkadan J.H. Greenberg irakasle estatu batuarraren lanen ondotik, eta gure artean zuzenago R.P.G. De Rijk euskaltzain holandarraren 1969ko *Is basque an SOV language?* artikuluarekin ⁵⁰. Hauetan ageriko eta oinarrizko SOV ordena atxikitzen zaio euskarari (Sujetua-Objetua-Aditza, SOA -SOV ingelesez-) munduko beste hainbat hizkuntzen konparaketa batean. Eta duda gabe ordena moeta hau askoz egokiago makurtzen zen Azkue-Altuberen antzeko tesi kanonikotara gure berritzaileotara baino.

Dagoeneko, ordea, has litekeela uste dugu esaten gure miaketan ondoren ⁵¹ euskara ez dela, sikiera maiztasunez, SOV (SOA) oinarrizko ordenako hizkuntza ⁵². Baizik eta ondo agerian SVO (SAO) ⁵³, maizenik Sujetua-Aditza-Objetua segida erakusten duena duda gabe, ordena hau horren anker gaitzetsi nahi izan bada ere azken mende oso honetan berriro erdal mamuaren izenean. Gure estatistiken arabera euskara beti izan da SVO (SAO) gure testu zahar ⁵⁴ eta klasikoen artean ⁵⁵, hala da ere joan den mendetik eta honen hasieretatik iritsi zaizkigun aho hizkeraren oihartzun fidagarri guztietan ⁵⁶, eta halaxe ere oraindik gaur eguneko aho hizkera denetan ⁵⁷, besteak beste K. Rotaetxek ere argi aitortzen duen bezala Ondarruko kasuan ⁵⁸.

50. *FLV*, 3, 1969, 319-351.

51. Ik. aldizkari honetan bertan gure «Ohar estatistiko garrantzitsuak euskararen hitz ordenaren inguru. Euskara, S.V.O.?» artikulua (*FLV*, 70, 1995, 401-420).

52. Euskaltzaindia berak ere duda egiten duen bezala tarteka aipatu 1987ko artikulu beti potpourri samarrean.

53. Eta balizko *sakonetan*, berriz, gu bederen oraingoz ez gara nor sentitzen hitzegiteko.

54. Kasuan B. Urgell-ek bere 1985eko *Refranes y Sentenciaseko hitz ordenaz zenbait ohar* izeneko lanean arakatutako testuak dira: 1596ko *Refranes y sentencias*; Mikoletaren *Modo breve para aprender la lengua vizcayna* (Bilbo, 1653); Kapanagaren *Exposición breve de la Doctrina Christiana* (Bilbo, 1656); *Viva Jesus* (XVII mendea; K. Mitxelenaren ed., *BAP*, X, 1954); *Domingo Egiaren kanta* (XVII mendea; A. Arejitaren ed., *Euskeraren Iker Atalak*, 2, 139-181); Fr. Juan de Zumarragaren *Gutuna* (XVI mendea; I. Sarasolaren ed., *ASJU* XVII, 1983, 97-102); eta *Berso Bizkaitarrak* (1688; J. Lakarraren ed., *ASJUXVIII*, 1984, 89-197). Lana argitaragabea da eta autoreak berak eskuratua guri.

55. Kasuan Axular eta Tartas aztertu ditugu, J.A. Mogel, J.B. Agirre, Duvoisin, eta A. Apaolazaren *Pachico Cherren* itzulpen-moldaketarekin batera.

56. Hala aztertu ditugu, W. Webster eta J.F. Cerquand-en ipuin bildumak, eta ere mende honen hasierako Urruzunoren ipuinak, eta M. Ariztiak argitaratuak 1934an.

57. Guk bereziki aztertu dugu kasuan Bizkaiko Zeberiokoa, J.M. Etxebarriak 1991n argitaraturiko bilduma folklorikotik.

58. *Estudio estructural del euskera de Ondarroa*, 1978, 336, 337, 647, 648, 649, 650.

Grenberg-De Rijk-ek ondo ohartu bezala, ordea, mende honetako testuek hegoaldean, oro har, gehiago erakusten dute SOV ordena beste ezein baino. Ez dirudi baina fenomenoa berriro gehiegi aldentzen denik Azkue aitalehenaren eragin bat gehiago izatetik XX. mendeko prosak jasaniko iraulketa bortitzean. Azkueren *Euskal Izkindean* aldarrikatzen dira lehenengo aldiz gure artean 1891n *Objetu-Aditza* eta *Atributu-Aditza* segidak euskararen berezko ezaugarri bailiran, eta ere ia derrigorrezko segida bezala ⁵⁹. Eta lehenago ere, noski, halako testigantzak falta behintzat inola ere falta ez badira euskararen barrena (ordena libroko hizkuntza baitugu), badirudi, soilik Azkuez geroztik eta soilik eskola Azkue-Altubetarrean bihurtzen direla esaldi mota hauek gehiago gure prosan bitartean beste inoiz ez bezala. Hala bada, Greenberg-De Rijk-ek finean deskribatu bide dute soilik *euskara Azkue-Altubetar* hori, jada Dodgsonen bestelakoan eta umore onez bataiatutako *askuenzea*, eta ez euskara, euskara osoa ⁶⁰. Eta ez litzaeke segurasko Greenberg-De Rijken aurkikuntzei hori beste baliorik eman beharko arlo honetan.

Egiteko dugun lana

Guk zinez uste dugu hitzen ordenaren eremuan oraindik daukagula euskara sikiera deskribatu gabe. Oraindik daukagula egiteke arlo honetan lan filologiko nagusia, hiztegi bezala, biltzen lehendabizi orotariko euskararen altxorra. Eta garrantzi gehiagokoa dirudi oraindik oinarritzko lan honek ⁶¹, beste gabean errepikatzen segitzea baino nonnahi Azkue-Altuberen erregela apokrifoa, edota gure kemenak eta sosak xahutzen segitzea baino, *askuenze* huts, pattal eta soil hori eman ahal izateko nolarebait kodifikazio sistema, hori bai, berri, moderno eta homologatuenetan.

Lan asko egin beharko litzateke, batetik zehatzago deskribatzen euskararen oinarritzko ordena libro hori mugatzen duten bestelako joera eta legeak. Bai aditz joskerari dagokionean, guk haizatutako «Xà» edo «aditza bigarren» fenomenoaren ingurutik. Nola, beronen haritik ⁶², edota bestela, esaldiko beste elementuen joerak bai funtzio sintagma bakoitzaren barnerako, nola ere funtzio sintagma horien arterako. Eta beti bereziki kontuz berraztertzen

59. SOA edo OAS erreskadetan, edota atributuarekin S-At-A edo At-A-S (1891, 344-5 orr.).

60. De Rijk-ek, batetik garaiko Nemesio Etxanizen testu eta itzulpenak aztertzen ditu, zeinak kalitatez idatzitakoak izan arren, ez diren inola ere libratzen garaiko ordenamendu modetatik. Eta beste itzik aztertzen ditu J.M. Barandiaranen testigantza folklorikoak, zeintzuetako asko uste dugun ez direla batere fidagarri beren hitzen ordenaren aldetik (batez ere, Barandiaranen Ataungo testigantza zuzenetan), hauek biltzaileak nabarmen zuzenduak diruditelako (ik. aipatu gure artikulua *FLV-n*). Barandiaran Azkueren ikasle eta jarraitzaile izango da dudagabe joskerak kontuetan ere, eta Azkuek nabarmen eta lotsa gabe zuzentzen zuen berak jasotako kontakizun folklorikoetako hitz ordena (Azkuek berak aitortua, 1934, *Euskalerrriaren Yakintza*, I, 18-9).

61. Areago, funtzio elementuen ordena esaldian zuzenean lotua dagoen heinean, ezerekin izatekotan, hiztunaren pentsamendu eta espresio askatasun eta kreatibitate ahalmenekin. Eta prezeski hizkuntzaren eta pentsamenduaren alor jasoen hauetan dirudi inon baino aberasgarriago euskara bere zabalean deskribatu nahi izatea. Aberatsagoa behintzat prezeptista itsua izaten segitzea baino horren korpus eskasaren gainean, eta nor bere amaren testigantza estimagaitz bezain eskasetan oinarriturik ia soilik. Ezta sikiera inolako euskara baturen izenean, bederen noizbait irten nahi badugu horren ohituta gauden gehiegikeria inkisitorial eta erreglamentismo itogarri eta batere beharrik gabekoetatik.

62. Hau da, Wäckernagel-en haritik, ez bakarrik aditzaren bigarren gunea aipatuz multzo fonikoan, baizik eta baita ere euskarazko beste hainbat elementu konjuntiboren bigarren gunea ere beren multzo fonikoan.

azken mende honetan arinkiegi geureganatuko sinplifikazio alinguistiko guztiak, ez direnak inola ere gutxi izan ⁶³.

Bestetik ere lan egin beharko genuke, hitz ordenamendu libro horretatik irten gabe ere, deskribatzen euskara barne betidanik aurki ditzakegun estilistika eta joera desberdinak, eta horrela ahalik eta hobetoen zehazten batzuen eta besteen ondorio komunikatiboak. Gure klasiko guztiak era amankomunean izanagatik ere denak anti-altubetarrak, ez baitira horregatik denak ere berdinak beren artean. Ez, esateko, Axular edo Tartasen estilo beti pontifikalak, garaiko Voltaire edo Micoletaren zerbitzuzkoen aldean, esateko. Eta ezta ere hegoaldeko Mogel-Agirrerena, iparraldeko Duvoisin, Elissanburu edo Jean Etcheperaren aldean. Estilistika dago estudiatu beharra.

Eraberean komeniko litzateke azkenik ere aztertzea, eta guk orain artean egin ahal izan dugun baino detaile gehiagoz, Azkue-Altuberen eskolak pausoz pauso ezagutu duen garapena XX. mendean barrena, hego nola ipar aldean gaur egunera arte.

Eta deskribatze honetan eginiko lanagatik aipamen berezia merezi du Aita Villasantek. 40 urtez ia bera bakarrik ahalegindu da gure artean benetako euskara horietako behintzat batzuen joskerak deskribatzen, ihesi sinplifikazio hutsalenetatik, nahiz beti garaiko korrante kanoniko nagusiaren aurka aritu. Oraindik izan zen Villasante bakarra Euskaltzaindiaren Leioako azken batzarrean bere hitza altxatzen gogoratzen denoi egundaino alor honetan ditugun zor inmensoak. Entzungo al zituen inork bere hitzak!

Inork beste zirikatzailerik beharko balu, zein hobea Mitxelena bera baino jada 1953rako ere gordin asko salatzen zituenean eskola Azkue-Altubetarraren legeak. Hala zioen berak orduan: «*Labur esateko, Altube jaunak finkatutako legeak, euskerak gorde bear lituzkeanak izango dira agian, baiña ez euskerak gorde edo gordetzen dituenak* ⁶⁴».

Ni bederen etsita nago, inoiz euskararen erabilera zabaltzea lortuko bada hau hizkuntza normalizatu bat izateraino, komunikazio hizkuntza eta ez soilik gaur egun horren maiz bezala testigantza edo errebindikazio hizkuntza, ezinbestean izan beharko duela gure prosa klasiko eta ahozkoaren molde beretsu haietan, hemen iruzkindu behintzat nahi izan ditugunak. Besteak, gaur egungo molde artifizialak, zoritxarrez soilik balio lezake gaur egun bezala erdi-bizi-erdi-hilik dagoen hizkuntza batentzako. Eta nik nahi dut euskara bizi dadin.

63. Hala, esateko, mendeko esaldien joskera joerak, eta hauen artean oso bereziki erlatibozko esaldienak. Eta hala, esaldi mota hauekin lotuta edo bestela, euskarazko elementu konjuntibo guztien guneak esaldian, jada Orotariko Hiztegian egiten hasia dena (eta Euskaltzaindia ere, *EGLU-III (Lokailuak)*, 1990, eta *IV (Juntagailuak)*, 1994; nahiz oraindik sumatzen den hauetan deskribatzez gaineko beste espiriturik ere, soilik objetiboa izatearenaz gain). Baina baita ere arazo puntualagoak: *-ko* edo *-(r)en* izenlagunen gune posiblea izenaren eskuinetik; adjetibo epitetoen erabilera inoiz izenaren aurretik (*gorri zerua, gaixo mutila*, edota *gazte jendea* itxurakoak); *-dun*, *-(t)ar* atzizkidunen erabilerak beren izen buruen aurre eta atzeetan; eraberean *-tzako*, *-kiko* eta antzeko birdeklinatuen guneak; ordinalen gune posiblea ere izenaren ondoretik (*kapitulu bigarrena*); *izen arrunta* → *izen propioa* segidak euskaraz alderantzizkoen aldean (*izeba Juana*); erakusleen guneak Euskalerrri osoan; aipatu aditzaren inguruko partikula modal guztien joskera joera bereziak; *-t(z)eko* aditz atzizkien erabilera izenen aurre-ondoreetan; zenbatzaile, mugatu eta mugagabeen joskera berezi eta desberdinak; graduatzaileen jokakerak; kapazitate / kantitateak emateko moduak eta hauen kanonikotasunaren maila eta zergatiak (*pare bat odolki / odolki pare bat; kilo bat sagar / sagar kilo bat*); ...

64. Ik. honen 1953ko *Arnaut Oibenart* hitzaldiaren bigarren partea (*BAP*, 1953, 460 eta inguruko atze eta aurrekoak), Villasante, artean altubetar sutsu bat makilatzen.

AIPATU BIBLIOGRAFIA

- AGIRRE, J.B. (1808) *Eracusaldiac*. Tolosa, 1850, 3 tomo; Donostia, Hordago, 1978.
- AGIRRE, T. (1912) *Garoa*. 4. arg., Arantzazu, 1966.
- ALLIÈRES, J. (1979) *Manuel Pratique de Basque*. Paris, A. & J. Picard, 1979.
- ALTUBE, S. (1919) *De sintaxis euskérica*. Donostia, 1920.
- , (1929) *Erderismos*. Euskera, 1929; Euskaltzaindia, 1975.
- ALTUNA, P. (1979) *Versificación de Dechepare. Métrica y pronunciación*. Mensajero, Bilbao, 1979.
- AÑIBARRO, P.A. (1969) *Gramática bascongada para el uso y alivio de párrocos y predicadores bizcaynos, guipuzcoanos y navarros*. ASJU, 1969, III, 3-169.
- APAOLAZA, A. (1890) *Pachico Cherren*. Bergara, 1890; Erein, 1992.
- AREJITA, A. (1982) «Domingo egiaren kanta». *Euskeraren Iker Atalak*, 2, 139-181.
- ARIZTIA, M. (1934) «Laburditar ipuinak». *Anuario de «Eusko-Folklore»*, T. XIV, 93-129.
- ARXU, J.B. (1852) *Uskara eta Frantzes Gramatika*, Baiona, 1852; 2. arg., Baiona, 1853; 3. arg. *Bi mihiren gramatika, uskara eta francesa*, Baiona, 1868; Hordago, 1979.
- AXULAR, P. (1643) *Gero*. Jakin, Arantzazu, 1976.
- AZKUE, R.M. (1888) «Grankanton arrantsaleak». *Euskera*, XXXIII, 1988, 379-89.
- , (1889-90) «Peru Matraka ta Pedr'anton», La Abeja, 1889-1890, I.
- , (1890) «Iolas-aldia». *La Abeja*, 1890, Urtarrila, 52-4.
- , (1891) *Euskal-Izkindea. Gramática Eúskara*. Bilbao, 1891.
- , (1893) *Behin da betiko. Lenengo irakurgaia*. Bilbao, 1893; Donostia, EEE, 1986.
- , (1894) *Ensayo Práctico*. (1896ko, *Método Práctico*-aren aurreko eskuizkribu argitaragabea, Euskaltzaindiako, Azkue bibliotekan).
- , (1896) *Método Práctico para aprender el euskera bizkaino y gipuzkoano*. Bilbao, 1896.
- , (1905-6) *Diccionario-Vasco-Español-Francés*. Bilbao, 1905-6 (2 vol.); La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbao, 1969.
- , (1925) *Morfología Vasca*. La Gran Enciclopedia Vasca, 1969, 3 tomo.
- , (1935-47) *Euskalerrriaren Yakintza*. Madrid, Espasa-Calpe, 1935-1947 (4 tomo); Madrid, 1989.
- AZURMENDI, J. (1977) «Orixeren frasekera: ritmoa». In *Zer dugu Orixeren alde*, Jakin, 1977, 325-345.
- CERQUAND, J.F. (1874-1885) «Légendes et récits populaires du Pays Basque». *Bulletin de la Société des Sciences, Lettres et Arts de Pau*, 1874-5, 1875-6, 1876-7, 1884-5. *Ipar Euskal herriko legenda eta ipuinak*, Txertoa, Donostia, 1985-6, 2 tomo.
- CHOMSKY, N. (1986) *Barriers*. Linguistic Inquiry Monograph, 13, The MIT Press, Cambr., Mass.
- DUVOISIN, J.P. (1856) *Liburu ederra*. Baiona, 1856; Hordago, Donostia, 1978; EEE, Donostia, 1987.
- , (1858) *Laborantzako liburua*. EEE, Donostia, 1986.
- ELEIZALDE, L. (1911) «Raza, lengua y nación vascas». *Euzkadi*, VIII, 1911, 163-196, 243-276, 323-339.
- ETXEBARRIA, J.M. (1991) *Zeberio haraneko euskararen azterketa etno-linguistikoa*. Ibaizabal, Deustu, 1991.
- ETXEPARE, J. (1910) *Buruchkak*. Elkar, 1980; EEE 1992.
- EUSKALTZAINDIA, (1987) «Hitz ordena». *Euskal Gramatika lehen urratsak - I (Eraskina)*, 19-46.
- , (1990) *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak. III (Lokailuak)*. Gramatika Batzordea, Bilbo, 1990.
- , (1994) *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak. IV (Juntagailuak)*. Gramatika Batzordea, Bilbao, 1994.
- GEREÑO, X. (1980) *Euskara ikasteko metodoa. Nouvelle méthode de Basque*. Traduction et adaptation, T. Trifol. X. Gereño, Bilbo, 1980.
- HAIMAN, J. (1974) *Targets and Syntactic Change*. Mouton, The Hague-Paris, 1974.
- HARRIET, M. (1741) *Gramatica escuaraz eta francesez*. Baiona, 1741.
- HIDALGO, V. (1991) *Altuheren azterketan*. (Lan argitaragabea, doktoretza tesirako prestatua).
- , (1993) *Hitzen ordena euskaraz. Euskal gramatikariaren testigantza: iritziak eta, praktika idatziak*. (Lan argitaragabea, doktoretza tesirako prestatua).
- , (1994) «Euskal joskeraren mito kaltegarriak (I). Nola idatzi euskaraz modu arin, ulergarri eta aberats batean.» (*Zutabe* aldizkarian argitaratzekoa.)
- , (1994) «Euskararen hitz ordena librea.» (*Zutabe* aldizkarian argitaratzekoa.)
- , (1994) «Aditza maiz euskaraz esaldi hasieran.» (*Zutabe* aldizkarian argitaratzekoa.)
- , (1994) *Hitz ordenaren estatistikak euskaraz*. (argitaragabea).
- , (1995) «Ohar estatistiko garrantzitsuak euskararen hitz ordenaren inguru. Euskara, S.V.O.?» (*FLV*, 70, 1995, 401-420).
- IRIGOIEN, A. (1979) «Sebero Altube eta euskal hizkuntzaren pleguak», *Euskera*, 1980, 325-353.
- ITHURRY, J. (1895-....) *Grammaire basque. Dialecte labourdin*. Bayonne, 1895.
- IVAP-HAEE (1994) *Hizkera argiaren bidetik*. Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea, Gasteiz, 1994.
- KANPION, A. (1884) *Gramática de los cuatro dialectos de la lengua euskara*. Tolosa, 1884; faksimila LGEV.
- KAPANAGA, M.O. (1656) *Exposición breve de la doctrina christiana*. Viso, 1893 (Dodgsonen epilogoz).

- KARDABERAZ, A. (1744) *Cristavaren vicitza*. Iruñean: Anchuela, 1744.
- ___, (1761) *Eusqueraren berri onac*. In *Euskal lan guziak*, LGEV, 1973/4, I, 155-170.
- LAKARRA, J. (1984) (ed.) «Bertso bizkaitarrak». ASJU, XVIII, 1984, 89-197.
- LARDIZABAL, F.I. (1856) *Gramatica vascongada*. San Sebastián, 1856.
- LÁZARO CARRETER, F. (1953) *Diccionario de términos filológicos*. Gredos, 3. arg., 1968.
- LEKUONA, M. (1918) *Métrica vasca*. Vitoria, 1918 (*Idaz-lan guziak. 1. Aozko literatura*, 1978, 131-157).
- LERTXUNDI, A. (1990) *Karla*. Erein, 1990.
- MAROUZEAU, J. (1922, 1938, 1949) *L'ordre des mots dans la phrase latine: I Les groupes nominaux; II Le verbe; III Les articulations de l'énoncé*. Paris, 1922, 1938, 1949.
- MARTINET, A. (1985) «Thème, propos, agent et sujet». *La linguistique*, 21, 1985, 207-220.
- MENDIBURU, S. (1747) *Jesusen Bihotzaren Devocioa*.
- ___, (1760) *Jesusen Amore-Nequeei dagozten cembait oititz-gai*.
- MIKOLETA, R. (1653) *Modo breve para aprender la lengua vizcayna*. Barcelona, 1880; Sevilla, 1897.
- MITXELENA, L. (1953) *Arnaut Oihenart*. BRSVAP, 1953, 445-463 (bereziki, 459-462 orr). (Orain in *Mitxelenaren Euskal Idazlan Guziak -MEIG-*, V, 35-47.).
- ___, (1954) (ed.), «Viva Jesus», BAP X, 1954.
- ___, (1960) *Historia de la literatura vasca*. Madrid, 1960.
- ___, (1961) *Fonética Histórica Vasca*. San Sebastian 1961. 2. ed., correg. y aum., San Sebastián, 1977, ASJU.
- ___, (1968) «Plan base o proyecto general sobre unificación. Euskera - Batasuna». *Euskera*, XIII, 1968, 203-219 (bereziki, *Joskera atala*, 218-9 orr.) (*MEIG*, VII, 135-153).
- ___, (1977) «Euskal hizkera eta euskal neurkera». *Euskera*, XXII, 1977, 721-733 (bereziki, *Ate osteko eraskin gisa atala*, 729-33 orr.) (*MEIG*, IV, 91-105).
- ___, (1978) «Miscelánea filológica vasca I». *FLV*, 1978, 205-228 (bereziki, *Relato y orden de palabras atala*, 220-224 orr.). (Baita ere, in *Palabras y textos*, EHU, 1987, 363-385).
- ___, (1979) «Miscelánea filológica vasca III». *FLV*, 1979, XI, 213-236 (bereziki, *Arratsaldea zen alakoa atala*, 226-230 orr.). (Baita ere in *Palabras y textos*, EHU, 1987, 411-433).
- ___, (1981) «Galdegaia eta mintzagaia euskaraz». *Euskal linguistika eta literatura: Bide berriak*. Univ. de Deusto, 1981, 57-8 (baita ere in *MEIG*, VI, 137-167).
- ___, (1987- ...) *Orotariko euskal hiztegia*. Bilbo, Euskaltzaindia.
- MOGEL, J.A. (1802) *Peru Abarca*. Durango, 1881; faksimila, 1981.
- OLAETXEA, B. (1763) *Dovrina Cristiana*, Vitoria 1763. (2. arg. zuzendua, Bilbo, 1775).
- ORMAETXEA, N. (Orixe), (1927) «Euskal-literatura'ren atze edo edesti laburra», *Euskal Esnalea*, 1927.
- ORTIZ DE URBINA, J. (1988) «Operator movement and verb second phenomena in Basque». *ASJU*, XXI-2, 321-355.
- OSA, E. (1988) *Euskararen hitzordena komunikazio zereginaren arabera*. EHU, 1990.
- PAGOLA, R.M. (1984) *Euskalkiz euskalki*. Euskara Zerbitzua, Eusko Jaurlaritzza, 1984.
- RIJK, R.P.G. de, (1969) «Is basque an SOV language?». *FLV*, 3, 1969, 319-351.
- ROTAETXE, K. (1978) *Estudio estructural del euskera de Ondarroa*. L. Zugaza, Durango, 1978.
- SARASOLA I. (1983) (ed.) «Fray Juan de Zumarragaren Gutuna». *ASJU*, XVII, 1983, 97-102.
- TARTAS, J. (1666) *Onsa hilceco bidia*. Orthez, 1666 (RIEV, I, II, III).
- TELLECHEA J.I. (1968) «Larramendi y Cardaveraz». *ASJU*, 2, 1968, 5-31.
- URGELL, B. (1985) *Refranes y sentencias-eko hitz ordenaz, zenbait ohar*. 1985, eskuizkribua.
- URKIZO, J. (1911-1933) *Los refranes y sentencias de 1596. Estudio comparativo*. RIEV, 1911-1933; Añamendi, Donostia, 1967, 2 tomo.
- URRUZUNO, P.M. (1988) *Ipuinak*. EEE, Donostia, 1988.
- VILLASANTE, L. (1956) «Comunicación del P. Villasante sobre la réplica del Sr. Altube al Sr. Michelena acerca de sintaxis vasca. - Estudios de sintaxis vasca». *Euskera*, 1956, 14-18.
- ___, (1966) «(Hitzaurrea)». In Txomin Agirre, *Garoa*, EFA (berrarg.), 3-16.
- ___, (1970) «Sintaxis». In *Hacia la Lengua Literaria Común*. EFA, Serie Eleizalde (2. arg.), 89-93.
- ___, (1974) «Euskara idatziaren joskera. Euskal idazle zaharren gaitzestea XX. mendean». *FLV*, 1974, 325-342.
- ___, (1975) «Hitzaurre gisa». In S. Altube, *Erderismos*, Euskaltzaindia (berrarg.), V-XII.
- ___, (1976) *Sintaxis de la oración compuesta*. EFA. Serie Eleizalde (bereziki, «Orden entre la oración principal y la subordinada», eta «Orden de colocación entre las subordinadas de un mismo período» atalak, 58-60).
- ___, (1979) *Historia de la literatura vasca* (2. arg.). Aranzazu. (Autore desberdinen azalpenetan barreiatutako iruzkinak, bereziki Azkue, Altube eta XX mende honetako hegoaldekoen artean).
- ___, (1980) *Sintaxis de la oración simple*. EFA. Serie Eleizalde (bereziki, «Ordenación de los elementos en la frase vasca», 227-260).
- ___, (1982) «Sarrera». In Lapeyre, *Kredo edo sinhesten dut esplikatua*, Euskaltzaindia (berrarg.), 5-27.
- ___, (1988) «Hitzaurrea». In Azkue, R.M. *Latsibi*, Labayru, IX-XIV.

- , (1988) «Prosazko tradizio sendo bat osatu beharra». In *Euskararen auziaz*, EFA, Serie Eleizalde, 141-154.
- , (1989) «Aita Ubillos-en “Christau doctriñ berri-ecarlea”». *Euskera*, XXXIV, 1989, 517-531.
- WACKERNAGEL, J. (1892) «Ueber ein Gesetz der indogermanischen Wortstellung», in *Indo-german. Forschungen*, I, 333-436 (edo 406-436).
- WEIL, H. (1844) *L'ordre des mots dans les langues anciennes comparées aux langues modernes*. 3^e. ed., Paris, 1879.
- WEBSTER, W. (1993) *Euskal ipuinak*. EEE, Donostia, 1993, 2 tomo.
- ZAMARRIPA, P. (1918) «La idea capital en las frases vascas». In *Ratos de Euskeralogía, La Gaceta del Norte*, 2 de Noviembre de 1918.
- ZUBIMENDI J.R.; ESNAL, P.(1993) «Joskera». In *Idazkera-liburua*, Eusko-Jaurlaritza, 1993, 133-235.

LABURPENA

Artikuluak artifizial eta apokrifotzat ematen ditu egungo hitz ordenamendu joera estandarrak euskaraz (labur, galdegai legea eta aditzaren atzeratze nabarmena), XX. mendea bitarteko tradizio idatzi eta ahozko erabilera guztien aurkakoak diren neurri berean. Zehatz Azkuegan kokatuko du legeen jaiotza XIX. mende hondarreko hizkuntz iraultza orokorrean, eta soilik hari lotuta eta haren eraginez explikatuko legeen arrakasta. Hauen aztarren historikoen laburbiltze bat egin ondoren, eta legeok eta euskararen beste SOV katalogazioak alboratuta saiatuko da errekuiperatzen euskal tradizioaren eta linguistikaren hainbat ikaskizunen haritik hitz ordena hori gobernatuko luketen hiru printzipio oinarritzko: 1. Hitz ordena librearena; 2. «Xà» edo «aditza bigarren» fenomeno, ezaguna bestelakoan hizkuntza indoeuroparren eremuan; eta 3. Komunikazio lege unibertsaltzakoen ildotik *tema* → *rema* -ren antzeko segida nagusia finkatzen duena esaldi barnerako. Azkenik printzipio hauen ingurutik eta tradizio idatziaren eta aho erabileren molde beti beretsuak errekuiperatuz proposatuko da ere aditza nabarmen aurreratzea egungo prosa moldean honen arazo komunikatibo larriak sailheste bidean.

RESUMEN

El artículo tacha de artificiales y apócrifos los actuales estándares de ordenación de palabras en la prosa vasca (a saber, ley del elemento inquirido y general postergación del verbo), en la misma medida de su oposición a la tradición escrita y a todos los usos orales conocidos. Se precisa en la persona de Azkue el nacimiento de estas leyes en la general revolución lingüística de fines del XIX, y sólo a su estela se explica el éxito incontestable de éstas. Después de un somero recorrido por algunos de sus antecedentes históricos, y relegándolas, así como posteriores catalogaciones SOV de la lengua, se trata de recuperar de la propia tradición vasca y de algunos de los descubrimientos de la lingüística, tres principios básicos que gobiernan tal ordenación de palabras: 1. El de la libre ordenación; 2. El fenómeno «Xà» o del «verbo en segundo lugar», por lo demás conocido en el ámbito de las lenguas indoeuropeas; y 3. El que establecería, siguiendo el hilo de leyes de comunicación universalizantes, ordenaciones del tipo *tema* → *rema* para el interior de la frase. Por fin, siguiendo estos principios y recuperando

los modelos siempre similares de la tradición escrita y de los usos orales, se propone un adelanto general del lugar del verbo en la ordenación de la prosa escrita actual como medio de eliminar algunos de sus problemas comunicativos básicos.

RÉSUMÉ

L'article reproche aux courants actuels d'ordonnance des mots dans la prose basque d'être artificiels et apocryphes (à savoir, loi de l'élément enquête et mise à l'écart générale du verbe), dans la même mesure que son opposition à la tradition écrite et à tous les usages oraux connus. On reconnaît en Azkue l'origine de ces lois dans l'évolution linguistique générale de la fin du XIX^{ème} siècle, et c'est seulement à travers lui qu'on peut en expliquer le succès. Après un parcours sommaire de quelques-uns de ses antécédants historiques, et les reléguant, de même que catalogations SOV ultérieures de la langue, il s'agit de récupérer de la propre tradition basque et de quelques-unes des découvertes de la linguistique, trois principes de base qui gèrent une telle ordonnance de mots:

1. Celui de l'ordonnance libre.
2. Celui du phénomène "Xà" ou du "verbe en deuxième position", phénomène d'ailleurs connu dans le cadre des langues indo-européennes.
3. Celui qui établit, en suivant le fil des lois universalisantes de la communication, les ordonnances du type thème → rhème, pour l'intérieur de la phrase.

Enfin, en suivant ces principes et en récupérant les modèles toujours similaires de la tradition écrite et des usages oraux, une avancée générale de l'emplacement du verbe est proposée dans l'ordonnance de la prose écrite actuelle comme moyen d'éliminer quelques-uns de ses problèmes communicatifs de base.

ABSTRACT

This paper considers the current standards of word order in the Basque prose (i.e., law of the inquired element and general verbal postponement) as artificial and apocryphal, in such measure as its opposition to the written tradition and to all known oral usages. The appearance of this laws in the general linguistic revolution of the late XIXth century is ascribed to Azkue, and only in his wake can these laws unchallengeable success be explained.

After a superficial survey of some of its historical antecedents, and relegating them, as well as a posterior SOV language cataloguing, we endeavour to recover, from the very Basque tradition and from some linguistic discoveries, three basic principles governing such a word order: 1. That of free word order; 2. The "Xà" phenomenon or "verb in the second place"; and, 3. That which would establish, according to some universalizing laws of communication, a word order of the type theme → rheme inside the sentence. Lastly, following these principles and

recovering the always similar models from the written tradition and oral usage, a general advancement of the verbal placement in the word order of the current written prose is proposed as a means of removing some of its basic communicative problems.